



BORTZIRIETARAKO EUSKARAREN II. PLAN ESTRATEGIKOA

2021-2024



Bortziriak, 2025eko martxoa

 **AURKIBIDEA**

Sarrera	3
Planaren oinarriari dagokien ebaluazioa	4
Zehar lerroko gaiei dagokien ebaluazioa	7
Helburuei dagokien ebaluazioa	9
Jarduerak: planaren betetze maila	28
Jarduerak: egokitasuna eta emaitzak	40
Euskara aurrekontuaren bilakaera	40
Adierazleak	41

 **SARRERA**

Kokapena

Dokumentu honek Bortzrietan 2021-2024 epealdian garatutako euskararen plan estrategikoaren ebaluazioa biltzen du. Bigarren plan estrategiko honen epealdia 2021-2024 bitartekoa bazen ere, 2025era arte luzatu da; II. Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta III. Plan Estrategikoa osatzeko prozesua trantsizio urte honetan gauzatu(ko) dira.

Bortzrietako Euskararen III. Plan Estrategikoa prestatzeko lanek urtarriletik maiatzera arteko denbora tartea hartuko dute eta asmoa da plana bera udazken hasieran aurkeztea, erredakzio lanak nagusiki udan egin ondotik. Bide hori Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin egingen dugu eta ebaluazio hau prozesu horren lehenbiziko urratserako mugarria da, egoeraren diagnostikorako. Herritarren parte hartze dinamiketarako lagungarri izaten ahal delakoan, dokumentu honen laburpen bat egitea aurreikusten da.

Urteko ekintza planen ebaluazioak (memoriak) plan estrategikoaren ebaluazio honetan eranskin bezala aurkeztuko ditugu; hala 2021-2024 urte bitarteko jarduera guztien ebaluazioa eginga dago, egindakoaren egokitasun edo arrakasta terminoetan. Ebaluazio orokor honek, ordea, plangintzaldiaren hasieran jarduera horien bidez lortu nahi genituen helburuei erreparatuko die batez ere, zenbateraino erdietsi ditugun urteotan egindako lanari esker. Horrek giltza emanen digu plan berriko helburu orokorrak eta zehatzak formulatzeko. Dokumentu honen amaieran kontrol panela ageri da zenbait adierazlerekin, plan honen hasieran Bortzrietan euskararen biziberritzean eragin nahi genituen aldaketa positiboak agertzen dira hor, epealdiaren amaierako datuekin parez pare. Horren bidez II. Plan Estrategikoaren inpaktuaren neurria hartuko dugu, orain dela 4 urtetik hona zertan hobetu dugun, zertan gauden berdintsu eta zertan egin dugun gibelera.

⇒ PLANAREN OINARRIAK



Bortziriak, euskararen arnagune

Lau urteren buruan, nekez erran dezakegu eskualde osoa arnagune denik. Halere, zalantzarik gabe, eskualde honek baditu arnagune izateko bokazioa eta aukerak. Arnagune izateko bidean, erraten ahal dugu urteotan kontzeptua gizarteratu dela eta horren kontzientzia hartzen hasi dela eskualdeko herritargoa. Arnagunearen kontzeptua oinarritzat hartzerakoan bat egiten du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen oinarriekin. Epealdi honetan bortz udalerriek UEMAREN partaide egitea lortu da.



Eskualde ikuspegia

Udalerri bakoitzak izan ditzakeen berezitasunak eta beharrak alde batera utzi gabe, Bortzirietako eskualdea hartu dugu oinarritzat. Bortzirietako identitatea eta idiosinkrasia historian garatu direla aintzat hartzeaz gainera, administratiboki ere hori da euskara mankomunitatearen eta bertze hainbat erakunderen lan eremua. Urte hauetan eskualde eta herrien arteko dinamika eta harremanetan ikusi dugu eskualdeko izaera horren nolabaiteko urteza; maiz herritar eta eragileei herriko ikuspegi eta mugak gainditzea nekeza zaie eskualde mailako antolaketa eta elkarlan dinamiketan parte hartzeko.

Plangintzaldiaren hasieran Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4-2019 Foru Legeak ekarriko zituen balizko aldaketak aipatzen ziren, Bortzirietako udalerriak Baztan-Bidasoa izeneko eskualdean integratuta. Egitasmo hori bazter gelditu da oraingoz, baina urteotan Bortzirietako zerbitzuen mankomunitate bakarra osatzeko egitasmoa gorpuzten hasi da. Prozesu horretan euskara mankomunitateak ez du eragiletza zuzenik izan eta euskara arloaren kokapenaren inguruko kezak nabarmendu dira (bai fisikoa zein organiko-funtzionala). Mankomunitate berria datozen hilabeteotan eratuko da eta eskualde ikuspegi horri eutsiko zaio. Euskararen zeharlerrokotasuna eta gainerako udal zerbitzuekin elkarlana areagotzeko saiakera egingen dugu erakunde berrian eta eskualde izaeran sakontzen ahaleginduko gara, sinetsita hizkuntzaren normalizaziorako oinarritzko unitatea hori dela.



Herritarren parte hartzea

Euskara mankomunitatearen izpirituari eta estatutuetan idatzitakoei jarraiki herritarren parte hartzea oinarri modura izan dugu. Dinamika apaltzearen ondorioz euskara batzordeak bertan behera utzi ondoren, Bortzirietan euskalgintza birpentsatzeko eta berrantolatzeke gogoeta egin zen 2021ean, herritarren eta eragileen parte hartzea areagotu eta euskalgintza sendotzeko. Horren emaitza izan da eragile berri baten sorrera: *Bor-Bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimendua*. Herritarrek eta euskalgintzak mankomunitatearen egituraren eta erabakietan parte hartzeari dagokionez, Aholkularitza Batzordea berregituratzeko lana eten da mankomunitate berria sortzeko prozesua dela eta. Gaur gaurkoz, Aholkularitza Batzordea da herritarrek mankomunitatearen egituraren nahiz erabakietan parte hartzeko bide bakarra, plan estrategikoaren jarraipen batzordearekin batera. Aholkularitza Batzordeak funtzio ezinbertzekoa betetzen segitzen du mankomunitatean eta bertan parte hartzen duten kideek aspaldi eskatu dute erreleboa. Ikusteko dago mankomunitate berrian herritar eta eragileen parte hartzerako organoak zer osaera eta betekizun izanen dituen, eta, bertzeak bertze, Bor-Borren parte hartzea zer nolakoa izanen den.

Herrietako norbanako eta eragileek planaren garapenean parte hartzeko jarraipen batzordea osatu dugu eta horren beharra eta egokitasuna nabarmendu nahi ditugu. Herritarrekiko elkarlanean euskalgintzako egituretatik harago joateari dagokionez bada zer hobetua, helburu eta jarduera batzuk arlo zehatzetako eragileekin landu beharko baitira, baita euskalgintzako egituraren parte hartzen ez dutenekin ere.



Entitate eragileak

Euskara bizitza soziopolitiko gidatuko duen bide orriaren erdigunera ekarri beharra aipatzen genuen planaren hasieran. Alegia, hizkuntzarenak bazterreko kezka edota euskaltzale boluntario, euskara batzorde edo zerbitzuetara mugatuko den gai periferikoa izateari utzi behar ziola, eta edozein enpresa, erakunde, ikastetxe edota era guzietako elkarteetako erdigunean kokatuko den helburu estrategiko nagusietako bat bilakatu behar zuela, horiek guziaz hizkuntza biziberritzeko prozesuaren lider bihurtuz. Urte hauetan bide horretan zenbait saiakera eta urrats egin baditugu ere (HEus mahaia, aniztasun taldea, enpresen foroa, zenbait elkarterekin bilerak, etab.), urrun gaude euskararen gaia eragile horiengan guztiengan erdigunera eramateak.

Eskualdeko tokiko erakundeei dagokienez, beharrezkotzat jotzen genuen bertako erakunde publiko guzietan euskara erdigunean jartzea eta entitate eragileak izatea. Eragile izateko konpromiso hori bere egiteari dagokionez, oraindik ere bide luzea dugu egiteko (mankomunitateak, garapen agentzia, turismoa,

zaharren egoitzak, kirol zerbitzuak, etab.). Urte hauetan eragiletza udaletan (UEMAren bultzadaz) eta Berdintasun Zerbitzuan (teknikarien arteko elkartruke eta elkarlanari esker) sumatu ditugu, inon sumatzekotan.



Komunikazioa

Plan estrategikoaren helburuetan herritarren aktibazioa eta, neurri batean, hizkuntza portaeren eraldaketa bilatzen ziren, baita nabarmentzen ere informatze hutsarekin ezin zirela helburu horiek bete. Herritarren emozioetan eragiteko eta aldaketak eragiten dituen komunikazio egoki baterako bidean egin dugu zerbait urrats, baina nekeza zaigu gero eta beteago ageri den espazio komunikatibo batean entzungarri edo entzunak izatea. Komunikazio kanalen biderkatzea eta xehekatzeak ere lanak zaildu egiten dizkigu, xede taldeengana ailegatzea, bertze eragile batzuek gure mezuak zabaltzea, eta abar.

Barne komunikazioari dagokionez, mankomunitatearekin batera aritu diren edozein motatako eragileekin (toki entitateak, euskalgintzako eragileak nahiz bertzelakoak) komunikazio egokia izan delakoan gaude eta bide horretan sakondu beharra dugu. Kanpo komunikazioari dagokionez (batik bat herritarrei bideraturikoa), planaren helburuen eta jardueren berri emateko helburuan aitzinera egin dugu eta sistematikoagoa da orain gure webgunean egiten dugunari buruz komunikatzen duguna, tokiko hedabideetan egitasmo horiei oihartzuna emateaz bat. Bertzerik da hizkuntza portaerak aldatzeko (edo indartzeko) eta aktibatzeke asmo hori lortu ote dugun.

Mankomunitate berria ate joka dugun honetan barne eta kanpo komunikazioari arreta berezia eskaini behar diegu, erronka handia dugu datozen urteotan, eta komeni komunikazio plana arlo horretan eskarmentua duen aholkularitza batekin egitea. Birpentsatu behar ditugu gure berri emateko eta herritarrengan eragiteko bide eta moduak.

➔ ZEHAR LERROAK



Aktibazioa eta sensibilizazioa

Sensibilizazioaz harago, hizkuntza aktibazioa jaso zen planean zehar lerro modura: “praktika bezala euskaraz aritzeak nagusitasun soziala izan dezan abiatzen dugun elkarlan prozesua burutzeko modua.”¹ Gure asmoa zen hiztun eta eragile bakoitza norbere eremuan euskara ikasteko, erabiltzeko eta aldarrikatzeko aktibatzea. Eraldaketa eragiteko praktika eta portaera horiek ipar izaten segituko dute aurrerantzean ere.

Planeko ildo eta arlo guztietan herritarren sensibilizazioa eta aktibazioa zehar lerro modura presente egon daitezen saiatu gara, baina beti ez dugu premisa hori barneratu edo bete ahal izan.



Kultura eta hizkuntza aniztasuna

Azken hamarkadotan eskualdean bizi direnen artean kultur eta hizkuntza aniztasuna areagotu da eta aniztasun hori aintzat hartzeko ahalegina egin dugu, euskara erdigunean paratuta. Aniztasun zein integrazio politiketan euskara zehar lerro gisa kokatu beharko litzateke eta balizko kultur aniztasun arlo edo zerbitzu batekin elkarlana ezinbertzekoa zaigu.

Aniztasuna normalizazio planak jasotzen dituen ildo eta arlo guztietan kontuan hartzen saiatu gara, baina beti ez dugu aintzat hartu edo gure jardunbidean barneratu ahal izan.

¹ Definizioa Zesar Martinez, Amaia Balda eta Imanol Larrearena, BAT aldizkaria, 2018. http://www.soziolinguistika.eus/files/05_zesar_martinez_et_al_107.pdf



Jasangarritasuna

Jasangarria ez den gizarte eredu batean bizi gara, eta iritzi zabaldua da egungo eredu ekonomikoari ezin izanen zaiola denboran mugarik gabe eutsi, egungo sistema ekonomikoa eta oreka ekologikoa bateraezinak baitira.

Iraunkorrek ez diren garapen eskemak saihesteko, eta bere jarduerak ahalik eta ingurumen inpaktu txikiena izan zezaten betekizuna paratu genion geure buruari plana abiatu genuenean. Jarduera guzietan ingurumena babestea eta tokiko baliabideak modu iraunkorrean kudeatzea zen asmoa, eta bide horretan guti aitzindu dugula eta aunitz dugula egiteko erran beharra dago. Administrazio elektronikoan lan egiten hasi berriak gara eta horrek epe ertainera paperaren erabilera murriztea ekarri beharko luke, nahiz eta jakitun garen horretarako behar diren gailuak ez direla jasangarriak.



Genero ikuspegia

Gauza jakina da eredu patriarkala nagusi den gizarte batean bizi garela, emakumeen gaitasunak eta eskubideak mugatzen dituen ereduan. Erakunde bezala genero berdintasunaren alde egitea dagokio mankomunitate honi, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bizitzako esparru guzietan lortzeko helburuarekin. Helburu hori, gure analisi, jardun eta ebaluazio guzietan aintzat hartzen saiatu gara eta aitzinera pausoak egin ditugu. Berdintasun Zerbitzuaren sorrera eta berdintasun teknikariekin harreman zein elkarlana mugarri izan dira bide horretan. Erakunde honen praktika, irudi, komunikazio eta diagnostikoetan genero ikuspegi hori aplikatzen segitzea eta garatzea dagokigu datozen urteotan.

⇒ HELBURUAK

Jarraian, planean aurreikusitako helburu orokorra, helburu zehatzak eta arloz arlokoak ebaluatuko dira. Honako galdera hauei erantzunen zaie: Planean aurreikusitako helburuak bete dira? Horiek betetzetik hurbilago gaude plangintzaldiaren amaieran? Abian jarritako egitasmo eta jarduerak, finean, zein emaitza edo eragin izan dute helburu horiek betetzeari begira?

HELBURU OROKORRA	HELBURU OROKORRARI DAGOKION EBALUAZIOA
<p>Bortzirietan euskararen biziberritzean aitzinera egitea eta arnagune izaera indartzea, norbanakoen eta mota guzietako gizarte eragile eta entitateen aktibazioa sustatuz.</p>	<p>Euskararen biziberritzean aitzinera egiteko ahaleginari sendo eutsi diogu eta arnagune izaerari buruzko kontzientzia indartu delakoan gaude, nahiz eta orokorrak diren joera sozio demografikoen ondorioz, ez den lortu Bortzirietako herri eta arlo guztietan euskara hegemoniko, arau sozial edo gutienez erabilera hizkuntza bilakatzea. Arlo batzuetan euskararen biziberritze prozesuari sendo eutsi bazaio ere (belaunaldi berrien euskalduntzea, euskarazko irakaskuntza, tokiko administrazioa, etab.), bertze arlo batzuetan ez dugu aitzinera pauso nabarmenik eman (arlo sozioekonomikoa, helduen erabilera, etab.). Alegia, arnagune bokazioa duen eskualdea garen aldetik, bide horretan sakontzeko urratsak eta baliabideak beharko ditugu datozen urteotan. Biziberritzean aitzinera egiteko helburuari herritar, eragile eta entitateekin batera eta elkarlanean heldu nahi izan diogu, eta euren aktibazioa eta parte hartzea sustatu ditugu.</p>



Ildea: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA

ILDOAREN HELBURU OROKORRA	ILDOAREN HELBURU OROKORRARI DAGOKION EBALUAZIOA
<p>Bortzirietako haur eta gazteen sozializazio prozesuan eragiten duten arloetan euskara ikasi eta erabiltzeko baldintzak bermatzea.</p>	<p>Baldintzak bermatzea lortu dela erratea gehiegizkoa litzateke, ez baita helburu bat inondik ere erabat mankomunitatearen esku dagoena. Edozein kasutan, erran daiteke onuragarria izan dela plan estrategikoaren baitan</p>

	ildo oso bat eskaintzea haur eta gaztetxoek sozializazioari, horrek ekarri baitu neurri handiago batean fokua eta baliabideak adin tarte horretan jartzea.
Ildoaren helburu orokorraren garapena	Ildoaren helburu orokorraren garapenari dagokion ebaluazioa
Bortzrietako haur eta gazte guztiak euskaraz hazteko baldintzak sortzea, eta euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko eskubidea gauzagarri izan dadin, ingurune euskalduna elikatzea (familia, kultura, hezkuntza, aisialdia, lagunartea, identitatea, etab.) belaunaldi berrien euskarazko erabateko sozializazioa lortzeko.	Haur eta gaztetxoek bizitzan gehien eragiten duten hiru arloak (etxea, eskola eta aisialdia) hartu dira ardatz gisa helburua betetzeko. Ingurune euskalduna elikatzeko ahalegin handia egin da azken urteotan mankomunitatetik. Arloko eragileekin egindako elkarlana nabarmenduko genuke (ikastetxeak eta UEMA bereziki), baina guraso elkarteekin elkarlan gehiagoren beharra ere ikusi dugu. Bertzalde, ez dugu lortu Beran A eredu izaten ari den hazkundearen aitzinean ekimen sendorik abiatzea.

Arloa: ETXEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK		
Familien motibazioa elikatzea euskarari buruzko hausnarketa egin dezaten, etxean euskararen presentzia ahalik eta handiena izan dadin eta jarrera aktiboa izan dezaten haurrak euskaraz sozializatzeko neurriak hartzerakoan (zaintzaileak, eskola, aisialdia, etxeko giroa...).	Bultzada handia eman zaio teknikarien sareak 2017an sortutako era.eus webgunearen garapenari, seme-alabak euskaldun hezi nahi dituzten familientzako informazioa eta baliabideak eskaintzen dituen tresna gisa. Mankomunitateak horren hedatze lana egin du eskualdean, bereziki familiei eta hezkuntzako eragileei zuzenduta. Horrez gain haurrak euskaraz hezteko baliabideak eskaintzen jarraitu dugu, horretarako hainbat baliabide eskainiz (<i>Euskarazko Produktuen Katalogoa</i> , Irria aldizkaria...). Familiak euskararekin sentiberatzeko egitasmoak egin dira: <i>Ongi etorri, jaioberri, Familia eta eskola norabide berean, Ispiluari begira</i> tailerrak (UEMA), Paula Kasaresen hitzaldia, etab.	

Arloa: ESKOLA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK		
Euskarazko murgiltze ereduaren unibertsalizazioa, bereziki kanpotik etorritako familien artean.	Urtetan alde batera utzitako kanpaina, D ereduaren aldekoa, berreskuratu egin dugu, batik bat Beran landuz. 3 urterekin eskolatzera doazen haurren familiei D eredu aholkatuz eskutitza eta hainbat baliabide bidali zaizkie. Horrez gain, D ereduaren ezaugarriak hainbat hizkuntzatan azaltzen dituen materiala familia zein ikastetxeen esku jarri dugu. Halere, nabarmentzekoa da Beran A ereduaren hazkundera, kanpotik eta normalean adin batekin datozen matrikula berrien ondorioz. Hurrengo plangintzaldian lehentasunez heldu beharreko arloa da, gero eta gehiago	

	baitira euskara ikasi gabe gelditzen diren neska-mutikoak.
Ikasleen euskararekiko jarrera aktibatzea.	Helburu hau betetze aldera hainbat jarduera burutu dira. Horietako batzuk UEMArekin elkarlanean, hala nola <i>Ispiluari begira</i> , <i>Bagoaz</i> , <i>Bixitailerra</i> eta <i>Batxitailerra</i> , ikastetxeen bitartez eskaini direnak. Horrez gain, Garabide elkartearekin munduko hizkuntza gutituen berri emateko tailerrak ere antolatu dira.
Ikastetxeekiko elkarlana areagotzea eta sistematizatzea.	Plangintzaldi honetako berrikuntza nabarmenena izan da H.eus Mahaiaren sorrera. Bertan biltzen gara Bortzirietako hezkuntzako eragileak eta euskara teknikaria. Hiru urterako onartutako planean honako ildo hauek lantzea adostu genuen: bertako hizkeraren gaineko formakuntza irakasleentzat eta horren aplikazioa ikastetxeetan; ikastetxeetarako hizkuntza irizpideen lanketa; hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruko protokoloa adostea eta egikaritzea; UEMAREN HEDATU programaren sistematizazioa. Elkarlan hori positibotzat jotzen da eta mankomunitateak jarraipena eman behar lioke. Horrez gain, nabarmentzekoa da Ricardo Baroja IParekin kulturartekotasuna lantzeko UEMArekin batera hasitako bidea. Hurrengo urteetan bertze ikastetxeetara zabaltzea aurreikusten da.

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK		
Familiak haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantziaz ohartaraztea.	Helburu hau betetzeko sentiberatze jarduerak egin dira, gehienak teknikarien sareko era.eus webgunearen garapen modura eta horren bidez informazioa eta baliabideak eskainiz. Bereziki <i>Eta eskolatik kanpo, zer?</i> egitasmoaren bitartez landu dugu.	
Haur eta gaztetxoentzako aisialdi eta kultur eskaintza euskaraz izan dadin bermatzea.	Bermatzea lortu dugunik ezin dugu erran, baina horretarako baliabideak eskaini ditugu: euskaraz irakurtzea sustatzeko tailerrak ere egin ditugu, jostailuen erakusketak, bertsolaritza sustatzeko kanpaina, <i>Irakurriz gozatu</i> kanpaina etab.	
Haur eta gaztetxoentzako euskarazko aisialdi eta kultur eskaintzaren berri ematea.	Funtzio hori betetzen du bereziki <i>Euskarazko Produktuen Katalogoak</i> . Urtetan paperean banatu dena, azken urteotan edizio digitalari indarra ematen ahalegindu gara, eta horrez gain adin tarteak banatzeko ahalegina ere egin da (<12 urte/12-16 urte). Bertzalde, era.eus webgunearen bidez etengabe elikatzen eta hedatzen ari gara haur eta gaztetxoentzako kultur eta aisialdi eskaintza biltzen duen agenda. Dindaia Fundazioak antolatutako <i>Euskaraz kilika</i> ekimenaren zabalkundearen lagundu dugu.	
Haur-gaztetxoei oporraldirako euskarazko eskaintza egitea.	Udaleku irekien hartzen dute pisu gehien helburu honen garapenean. Zalantzarik gabe, denbora eta baliabide ekonomiko gehien hartzen duen jarduera da, baina parte hartze handia du. Plangintzaldiaren bukaeran eragile anitzen arteko gogoeta egin da eskaintza honen inguruan, eta finkatua gelditu da datozen urteotako eskaintza. Horrez gain, UEMAK antolatzen dituen Salto	

	udalekuen zabalkundean laguntzen dugu urtero. Bertzalde, azpimarratzekoa da <i>Mugaldeko Udalekua</i> eskaintza berriari izan dugun parte hartzea; mugaren bi aldeetako gaztetxoak euskararen inguruan elkarrekin harremanetan jartzeko jardura interesgarria da, jarraipena izan dezakeena hurrengo urteetan. Bertzalde, era.eus webgunearen garapenarekin lotuta eta teknikarien sareko ekimen modura, urtero egin dugu familiei euskarazko udaleku itxien berri emateko kanpaina.
Haur-gaztetxoaren aisialdian eta kirol jardueretan aritzen diren arduradunen euskararekiko jarrera aktibatzea.	Arlo honetan beharrak eta lehentasuna handiak izanik ere, ez dugu lortu horretan ari diren eragile nagusienekin lan ildo bat irekitzerik, bi klub garrantzitsuenekin (Beti Gazte eta Gure Txokoa) saiakera egin bada ere.
Haur eta gaztetxoaren euskarazko kultur sormena bultzatzea eta prestigiatzea, kontsumoa bultzatzea...	Sormena bultzatzeko ez da lan ildorik garatu, baina euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzeko arestian aipatutako jarduerak egin dira (<i>Euskarazko produktuen katalogoa</i> , bertso eskolen sustapena, etab.).
Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako ikasleen euskararako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.	Ikasle etorri berrien euskararako ibilbidea errazteko aitzinera pausoa eman dugu, eskola orduz kanpoko indartzeekin (<i>Solasean</i> egitasmoa), gaia ikastetxeekin landuta. Esku hartze berezirik ez izatetik programa propioa izatera pasa gara eta hezkuntzako eragileen eta gurasoen beharrei erantzun diegu. Helburua betetze bidean dela erraten ahal dugu, baina oraindik ere aunitz dugu egiteko, aniztasuna aitortuta, ikasle horien euskarazko sozializazioa lantzeko. Baliabide eta eragile gehiago beharko dira.
Haur eta gaztetxoaren lagun taldeetan euskararen erabilera indartzea.	Helburu hau garatzeko ez da lan ildorik zabaldu. Kuadrilategi egitasmoa aztertzea aurreikusten zen, baina ezin izan diogu horri heldu.



Ildoa: HIZTUN BERRIAK

ILDOAREN HELBURU OROKORRA	ILDOAREN HELBURU OROKORRARI DAGOKION EBALUAZIOA
Bortzirietan euskaraz hitz egiten duten herritarren kopurua handitzea.	Helduen artean ez dugu lortu euskaraz hitz egiteko gaitasuna duten herritarren kopuru absolutua handitzea. Azkeneko ezagutza datuak 2021ekoak dira eta plana abiatu genuenean 2011ko datuak hartu genituen erreferentziatzat. Datu orokorretan hazkundera izan da, baina 2011ko datuak zehaztu ahala ohartu gara hamarkada horretan euskararen ezagutza mantendu egin dela; Bortziritarren hiru laurdenak dira euskaldunak. Ordea, 15 urtetik goitiko biztanleen artean zertxobait beheiti

	egin zuen euskararen ezagutzak. Datu eguneraturik ezean gure hautematea da, oro har, Bortziritan hiztun kopuruari eutsi zaiola, eta akaso ez da gutxietekoa azken urteotako joera soziodemografikoei erreparatzen badiegu. Epealdi horretan zertxobait goiti egin du elebidun hartzaileen taldeak eta hor antzematen da jendartea euskalduntzeko igurtzia.
Ildoaren helburu orokorraren garapena	Ildoaren helburu orokorraren garapenari dagokion ebaluazioa
Euskaraz jakinen duten hiztun gehiago izatea, bereziki gurera kanpotik bizitzera etorri diren jatorri anitzetako herritarren artean. Hiztun berrien ikusgarritasuna handitzea, erabilerarako jauzia egitea eta haien ikas prozesua eta emaitza prestigiatzea.	Helduen euskalduntzeari esker lortu dugu (maila batean) hiztunak irabaztea. Kanpotik gurera bizitzera etorri diren herritarren artean gero eta gehiago dira euskara ikasteko erabakia hartu eta euren ikasketa ibilbidea abiatu dutenak, baita horretarako gogoia adierazi dutenak ere (Bortziritako euskaltegian azken ikasturteetan ikasteen ari direnen artean % 30etik goiti etorri berriak dira eta <i>Bortziritako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko jarrerak eta pertzepzioak</i> ikerketaren arabera, migratzaileen artean % 54ek euskara gehiago ikasi nahiko luke). Ordea, euskalduntze ibilbidea hasi dutenetatik guti dira adierazpen maila ertain batera ailegatu direnak. Kopuru absolutuetan atzerrian jaiotakoan artean euskaldunen kopurua mantendu da (128 ziren 2011n eta 127 2021ean). Atzeritar jatorrikoen artean elebidun hartzaileen kopuruak goiti egin du epealdi berean, kopuru absolutuetan 72tik 127ra. Hiztun berriei ikusgarritasuna eta prestigioa emateari begira, azken lau urteak emankorrak izan dira eta gaia bereziki landu dugu matrikulazio kanpainetan. Euskara ikasleen ikas prozesua prestigiatu eta erabilerara jauzia eman dezaten, ordea, badugu oraindik zeregin franko.

Arloa: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK		
Herritarren artean euskararen ezagutza handitzeko (herritar gehiegok euskara ikasteko), euskalduntze-alfabetatzea prestigiatzea eta sustatzea.	Lau urte honetan dezenteko lana egin dugu euskalduntze-alfabetatzea prestigiatzeko eta sustatzeko. Horrek isla izan du sustapen planean eta ikus entzunezkoen erabileran (<i>Hamaika ikusteko!, El euskera abre puertas en el ámbito profesional, Euskaldunak garen eta izan nahi dugunez gero...</i>). Sustapenean euskaltegiarekin, sarearekin eta Euskarabidearekin elkarlana eta osagarritasuna sakondu behar ditugu. Herritar gehiegok euskara ikasteko estrategia berriak behar	

	ditugu: desiragarritasun soziala, arloaren, azpiegituren eta eskaintzaren eguneratzea, eta abar.
Hiztun berrien aitortza eta ikusgarritasuna handitzea.	Lau urte honetan dezenteko lana egin dugu hiztun berrien ikusgarritasuna handitzeko eta matrikulazio kanpainen protagonista bihurtu ditugu ikasle eta hiztun berriak (Nuria, Alba, Manu, Marina, Meylin, Juanma, Karmen, Araceli, Adela eta Kevin).
Euskalduntzeko eta alfabetatzeko eskaintzaren kalitatea eta dibertsifikazioa laguntzea.	Gai honetan egin dugu urratsen bat, hasi gara euskara 0 ikastaroak eskaintzen (zaintza eta merkataritza), eta hitano ikastaroa antolatu dugu. Eskaintzaren kalitatearen gaia apenas landu dugu.
Euskalduntze-alfabetatzea unibertsalizatzea eta herritar ororen eskura egotea euskara ikasteko aukera. Giza talderik ez diskriminatzea euskara ikasteko eskubideari dagokionez.	Bortzirietako dirulaguntza sistema egonkortu eta ezagutzera emanda, hein batean helburu hori bermatzen ari garelakoan gaude. Oraindik ere falta da aukera eta eskubide hori badela herritar guztiek jakin dezaten, eta eragile gehiago inplikatu beharko genituzke informazioaren zabalkundearen. Gure dirulaguntza Euskarabideak ematen duenarekin ezin uztartzea eta garraioa edo ordutegia dela eta euskaltegitara joan ezin dutenen egoerak kezkatzen gaituzte.
Bortzirietako euskalduntze-alfabetatzeko antolamendua hobetzea; Euskaltegia laguntzea.	Urte hauetan Euskaltegiarekin elkarlana eta koordinazioa sistematizatu ditugu; urtean hiru bilera egiten ditugu. Euskalduntzeko-alfabetatzeko antolamendua hobetzeko ez dira urrats adierazgarriak egin azken urteotan eta eskaintzari dagokienez baditugu zenbait hutsune (ikastaro labur edo berariazkoak, taldeak herri guztietan eskaintzea, eta abar.).

Arloa: TRANTSIZIOA IKASTETIK ERABILTZERA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK		
Euskara ikasten ari direnei erabilerara jauzia egiten laguntzea eta euskaldunen sarea trinkotzea.	Solaslagunari esker neurri batean helburu horri heldu diogu eta erraten ahal da zenbait ikasleren kasuan erabilerara jauzia ematea eta euskaldunen sarea trinkotzea lortu dugula, edo bederen horretan lagungarri izan garela. Dena dela, egitasmoarengan dezenteko eragina izan zuen pandemiak eta ez du izan esperotako garapenik. Zorionez, azken urtean ari da pixkanaka indartzen.	

Arloa: KANPOTIK ESKUALDERA ETORRITAKOAK		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK		
Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako erdalduak euskarara erakartzea eta euskararako ibilbidea erraztea zein laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.	Kasu honetan ere, helburuari erantzun diogu eta lanbidearekin loturako oinarrizko ikastaroen bidez lortu dugu bereziki immigrazioko jatorria duten herritarrak euskarara erakartzea (zaintzari buruzko bi ikastaro eta merkataritzari buruzko bat antolatu ditugu) eta bederen euskararako atari bat eskaintzea, nahiz kasu bakanetan lortu den abiapuntu horretatik euskara ikasten segitzea ohiko ikastaroen bidez, eta abar.	



Ildoa: GIZARTE ERABILERA

ILDOAREN HELBURU OROKORRA	ILDOAREN HELBURU OROKORRARI DAGOKION EBALUAZIOA
<p>Gizarte bizitzaren arlo guzietan euskararen erabilera handitzea eta horretarako aukerak areagotzea.</p>	<p>Arlo guzietan euskararen erabilera handitzeko eta aukerak areagotzeko ahalegina biderkatu dugu, gizarte erabilerari planean eskainitako jarduera kopuruari begiratzea bertzerik ez dago. Kale erabileraren datu gorakorrek euskararen bizindarrari buruz baikor egoteko aski motibo ematen badigute ere, badugu hutsune eta zer hobetu franko, lan arloan eta zerbitzuetan, teknologia berrietan eta arlo digitalean, aisialdian eta kultur kontsumoan, etab.</p> <p>Aukerak areagotzeko helburuari begira plangintzaldi emankorra izan delakoan gaude. Kontuan hartu behar dugu tokiko euskara zerbitzu baten ikuspegitik eragiteko arlorik zailenak direla honako hauek: arlo sozioekonomikoa, ingurune digitala, aisialdiaren, hedabideen eta kultur produktuen kontsumoa, hizkuntza eskubideak, etab. Hurrengo plangintzaldirako gako nagusienetakoa izaten segituko du aktibazioaren ikuspegitik mota guztietako elkarte, eragile eta entitateek euskararen gaia bere egin eta erabilera handitzeko erronkari heltzea, euskara zerbitzuarekin eta euskalgintzarekin elkarlanean.</p>
<p>Ildoaren helburu orokorraren garapena</p> <p>Euskararen gizarte erabilera sendotzea, Bortziriak euskararen arnagune izan daitezen, eta arloz arlo, familian, lagunartean, administrazioan, aisialdian, kirolean, elkartegintzan, kulturaren (transmisioa eta prestigiatzea), etorri berrien harreraren, eremu digitalean, arlo sozioekonomikoan, etab., euskararen erabilera areagotzea, horretarako herritarrak eta gizarte eragileak aktibatu eta ahaldunduta, eta dinamika sozialak bizkortu eta babestuta.</p>	<p>Ildoaren helburu orokorraren garapenari dagokion ebaluazioa</p> <p>Erabilera sendotzeko ahalegin horretan tematu gara arloz arlo, baita herritarrak eta eragileak ahalduntzen saiatu ere. Euskararen erabilera areagotzeko igurtzia sumatu da Euskaraldiarekin, herritarrek hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara gehiago erabiltzeko aktibatuta, entitateetan ariguneak antolatuta, udaletako euskara plan eta ikastaroekin, merkataritzan <i>Herrian erosi, euskaraz erosi</i> egitasmoaren urteroko sustapenarekin, enpresetan euskararen erabilera areagotzeko saiakerekin, azkenak enpresen foroaren sorrera ekarri baitu, eremu digitalean baliabideei buruz eta euskararen erabilera bultzatzeko bideoak eginez, etorri berrien harrerarako, herritarrek elkar ezagutzeko eta aniztasuna balorean sortzeko espazioak eta uneak sortuta, euskarazko kultur eskaintza elikatzen eta kultura</p>

	prestigiatzeko zein kontsumoa sustatzeko <i>Literatur</i> geraldia bezalako proposamen berriekin, eta abar.
Arlo sozioekonomikoari dagokionez, datozen urteotako erronka nagusia enpresa eta lan mundua euskalduntzeko pausuak ematea, eta euskaraz eskolatuak eta neurri handi batean bizi diren belaunaldi berriek modua izan dezaten lanean ere euskaraz aritzeko, horretarako egituretan aldaketak eraginez (enpresetan erabilera planak abian jarriz erraterako), eta sortzen diren egitura berrietan euskara hasieratik erabilera hizkuntza (nagusi) izan dadin, Euskal Herri mailako dinamika orokorrako baten barne parte hartuz, eta hainbat eragile publiko eta sozialekin elkarlanean arituz.	Arlo sozioekonomikoa zabal eta askotarikoa da. Arlo publikoa eta pribatua barne biltzen ditu, enpresa handiak eta tikiak, industria, merkataritza, zerbitzuak, lehenbiziko sektorea, zaintza arloa, etab. Gure erronka nagusia zena, belaunaldi berriek lanean euskaraz aritzeko aukera izan dezaten enpresetan erabilera planak abian jartzea, erraterako, edota sortzen diren egituretan euskara nagusiki erabiltzea ez ditugu lortu; ez dira guretzat hain eskuragarri toki entitate publikoa garen aldetik eta etorkizunean arlo horretan eragiteko ahaleginak, aliantzak eta baliabideak biderkatu beharko ditugu, aitzinera pausoak emanen baditugu.

Arloa: AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK		
Herritarrak aktibatzea, ahalduntzea eta eraldaketaren motore bilakatzea, euskararen erabilera handitzeko, hizkuntza ohiturak astintzeko eta euskara gizarte bizitzako esparru gehiagotara heltzeko.	Herritarren aktibazioa urte hauetan tarteka lortu dela erraten ahal dugu, Euskaraldia eta Korrika bezalako egitasmo orokorren baitan erraterako, oro har, herritarren aktibazioa eta gizarte parte hartzea laxotu edo bakandu den garai batean. Euskalgintzaren aktibazioarekin lotuta 2021ean egin genuen gogoeta prozesuaren ondorioz sortu zen Bor-bor euskaltzaleen mugimendua.	
Gizarte eragileak eta herritarrak euskararen egoeraz jabetzea, arnaguneen funtzioaz eta garrantziaz, eta beren hizkuntza ohiturez gogoeta egitea.	Arnaguneen funtzioaz eta garrantziaz herritarrak eta eragileak kontziente izan daitezzen zenbait kanpaina, jarduera, tailer eta bilera egin dugu, betiere UEMArekin elkarlanean (<i>Arnasetik</i> bideo sormen lehiaketa eta <i>Arnasa gara</i> kanpaina). Inpresioa da gai hauen sozializazioan "ondoko" geruzatik harago deus guti aitzindu dugula: euskalgintzatik kanpoko herritar eta eragileengana ailegatzeko eta gure mezua sarbidea izateko badugu oraindik bidea.	
Euskal Herriko aktibazio eta sensibilizazio ekimenak Bortzirietan hedatzea.	Helburu hori bete dugu bereziki Euskaraldian eta Korrikan parte hartuta eta egitasmo horiek Bortzirietan hedatuta. Plangintzaldi honen barne 2 Euskaraldi eta bi Korrika sartu dira, eta pandemia garaiko gorabeherak alde batera utzita, herritar eta eragileen batzordeak izan ditugu bietan, eta, Euskaraldiaren kasuan, propio dinamizazioa kontratatatu du mankomunitateak.	
Bortzirietako euskararen berreskurapen prozesua jasotzea eta herritarrei horren berri ematea.	Bortzirietan euskararen biziberritzea nolakoa izan zen jasotzeko egitasmoa burutu dugu. Lehenik, eskualdean 1970-1990 bitartean ahalegin horretan aritu ziren eragileei elkarrizketak egin zaizkie, memoria hori jasotzeko helburuarekin. Ondoren, informazio hori guziaz kodifikatuta, <i>Gogoa pauso, pausoa bide</i> ikus-entzunezkoa ondu dugu. Herri guzietan emanaldiak egiteaz gainera, 2025ean material horren zabalkundearen zenbait urrats (webgunean jarri, ahotsak.eus eta	

	mediateka.eus webguneetarako lagapena egin...) egiteke gelditu dira.
Arloa: TOKIKO ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK	
Lehentasuna: ALTUA	
HELBURUAK	
Bortzirietako toki entitateak euskararen normalizazioan motore izatea. Hizkuntza politika ausart eta aurrerakoia egitea.	UEMAk proposatutako hizkuntza irizpideetan oinarrituta udalek udalerrirako planak onartu dituzte, politika ausart eta aurrerakoi horren isla. Nolanahi ere, eragiletza egitasmo horien garapenean demostratu beharra da. Alegia, politika ausart eta aurrerakoi batzuk inplementatzen dira, baina bertze batzuek garapena behar dute. Berdintasun zerbitzuak ere erakutsi du eragile izateko bokazio hori, baina bertze mankomunitate, erakunde autonomo, patronatu eta abarren kasuan urrun gaude eragiletza horretatik.
Bortzirietako toki entitateetan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatea.	UEMAn egonda udalek erakundearen beraren euskarazko funtzionamendua euskaraz izan dadin eta herritarrei euskarazko arreta bermatzeko planak onartu eta urratsak egin dituzte. Irizpide horiekin bat eginda hasi du bere ibilbidea berdintasun zerbitzuak. Bertze mankomunitate, erakunde autonomo, patronatu eta zerbitzuen kasuan, urrunago gaude lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea bermatzeko. Euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izan dadin udaletako hizkuntza eskakizunen betetzeari jarraipena egin zaio euskara mankomunitatetik eta lanpostuak betetzeko hainbat proba egin eta bideratu dira.
Arnasguneen zaintza.	Zaintza lan hori UEMAren altzoan egiten dugu eta hirigintza egitasmoen eta bertzelakoen eragin linguistikoa neurtzek eta neurri zuzentzaileak proposatzeko tresna prest dugu. Plangintzaldi honetan Arantzako Udal Plan Orokorren <i>Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa</i> egin dugu. Gainerako udaletan ez da beharra suertatu, baina tresna prest dago aplikatzeko.

Arloa: ARLO SOZIOEKONOMIKOA	
Lehentasuna: ALTUA	
HELBURUAK	
Euskara laneko hizkuntza izan dadin eragitea, eta lan mundua nagusiki euskaraz izan dadin lortzeko datozen urteotako estrategia bateratuan parte hartzea.	Estrategia bateratuetan parte hartzeko saiakera egin dugu hasieratik, baina plangintzaldiaren akabailan suertatu zaigu horretarako beta, eskualde mailako egitasmoaren topaketaren eta bertatik abiatutako elkarlan dinamikaren eskutik; ikusteko dago zer bide eginen duen. Horrez gain, Bortzirietako enpresen foroarekin saiatu gara elkarlan dinamika sortzen enpresa, langileen ordezkari, garapen agente, lanbide heziketako arduradun eta sindikatuekin. Izatekotan, bide baten hasmentan gaude, datozen urteotan indartzea eta garatzea beharko duena.
Enpresa handietan euskararen presentzia areagotzea.	Epealdi honetan aitzinera pauso guti egin dugu, erabilera informalean edota ardura postuetan langile euskaldun eta euskaltzaleek berez ekarri ahal izan dituztenez harago. Ez da ekintza puntualik ezta planifikaturik ere gauzatu euskararen presentzia hori areagotzeko. Euskaraldiaren baitan erabilera espazio eta uneak sortu dira ariketak iraun bitartean, baina ez dakigu horien

	eragina zenbaterainokoa izan den eta zerbait iraunkorra utzi ote duen.
Bortzirieta zenbait enpresatan euskararen erabilera areagotzeko planak abiatzea, bide hori urratzen hastea.	Erabilera planak abiatu eta euskalduntze neurriak gauzatzeko eragite lana egin dugu eta lan hori sendoagoa da orain dela 4 urte baino, hori izaten ahal da lorpen bakarra. Ez dugu ordea lortu euskararen erabilera planak abiatzea Bortzirieta enpresetan. Euskarabidearen dirulaguntzaren urteroko sustapenarekin eta enpresen foroaren sorrerarekin akaso hurbilago gaude helburu horretatik. Oraingoan, enpresa pare batek adierazi dute zenbait ekintza egiteko asmoa eta horiek Euskarabidearen deialdira aurkezteko, baina ikusi beharra hala izanen ote den.
Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan herritarrei euskarazko arreta bermatzea eta erabilera areagotzea.	Helburua herritarrei euskarazko arreta bermatzea bazen, hagitx konplexua eta aldakorra den errealitate batean, batez ere ostalaritza bezalako sektore batean, ezin erran bete dugunik, eta zenbait kasutan atzerakada sumatu dugu (denda, ostatuak eta jatetxeak, zenbait zerbitzu...). Erabilera areagotzeko eragiletzan egin ditugu urratsak, dela <i>Herrian erosi, euskaraz erosi</i> egitasmoaren bidez, dela UEMAREN ekimenez, dela Euskaraldiaren bidez.
Bortzirieta datozen bisitari eta turistak euskarara hurbiltzea eta euskara prestigioatzea.	Turistak eta bisitariak bertako hizkuntzaren inguruan sentiberatzeko eta erabiltzera bultzatzeko euskarriak sortu eta banatu ditugu (<i>Ongi etorri, hemen euskaraz bizi gara</i>). Horrez gain, UEMAREN <i>Bertatik bertara</i> kanpainaren zabalkundearen aritu gara. Nafarroako turismo plan estrategikorako hainbat ekarpen zehatz egin genituen. Bada arlo bat hurrengo urteetan landu beharrekoa, Baztan-Bidasoara datozen bisitarien kopurua handitzen ari baita. Turistei begira ez ezik, arloko eragileei begira ere lan egin behar da, eta horretarako funtsezkoa da Baztan, Malerreka eta Bortzirieta euskara zerbitzuen arteko elkarlana. Plangintzaldi honetarako aurreikusiak ziren zenbait egitasmo garatu gabe gelditu dira, elkarlan horren faltan.

Arloa: INGURUNE DIGITALA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK		
Ingurune digitalean eta teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzea eta ahalbidetzea.	Ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzeko hiru bideo sortu ditugu (<i>sare sozialak, Internet nabigatzaileak eta telefono mugikorrak</i>), ikastaroak antolatu ditugu, eta planaren azken bi urteetan abian jarri dugu establezimenduetan hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza. Sustapen lan horretan aitzinera pausoak eman ditugu, euskararen erabilera ahalbidetzeko helburutik, ordea, urrun xamar gaude, programa, sare, tresna eta aplikazio gehienak enpresa multinazionalen jabegokoak baitira eta gure eragin ahalmenetik urruti xamar daude. Eskualdetik haragoko dinamikak eta egitasmoak beharrezkoak izanen dira aitzinera egiteko. Mankomunitatean bertan sumatu dugu atzerakada eta konparazio batera administrazio elektronikoa kudeatzeko aplikazioak ez digu euskaraz lan egiteko aukera eskaintzen. Etorkizunean, belaunaldi berriekin lehentasunez lantzeko ildoak izanen da, eskura dauden tresnak euskaraz erabil	

	ditzaten eta jarrera aktiboa izan dezaten euskarazko tresnak aldarrikatzeko.
--	--

Arloa: TOKIKO KOMUNIKABIDEAK		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK		
Eskualdeko komunikabideak babestea.	Eskualdeko euskarazko bi komunikabide nagusienekin (<i>Ttipi-ttapa</i> eta <i>Xorroxin</i>) hitzarmenak sinatu dira urtero, haien jarduera diruz laguntzeko helburuarekin. Dirulaguntza horren bilakaera aztertu beharko litzateke, eta agian irizpideak berrikusi.	

Arloa: KULTURA		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK		
Euskarazko kultur eskaintza zabal eta askotarikoa ziurtatzea, kultur eragileekin harremanetan.	Bortzirietako euskarazko kultur eskaintza zabal eta askotarikoa ziurtatzea aitzineko planaren lorpena izan bazen ere, erraten ahal da oraingo honetan eskaintza hori egonkortu dela. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak segitu du herri txikietako euskarazko kultur eskaintza osatu eta laguntzen, kultur egunen bitartez. Bertako udal ordezkari eta elkarteek gero eta pisu handiagoa dute kultur egun horien antolakuntzan, baina plangintzaren bukaeran bertako eragileek ez dituzte oraindik % 100ean euren gain hartu (finantzaketa, antolaketa, komunikazioa, etab.). Saiakera egin dugu kultur eragileekin harremana estutzen, bereziki Gure Txokoa eta Beti Gazterekin hizkuntza irizpideen gaia lantzen hasi gara, baina diagnosi fasean tratatu gara eta ez dugu aitzinera egin.	
Euskarazko kulturaren sorkuntza, transmisioa eta kontsumoa sustatzea, kulturgintza eta hizkuntza sozializazioarekin lotuta.	Sustapen lan hori bete dugu eta gure ekarpena egin diogu euskarazko kultur sormenari, transmisioari eta kontsumoari, bertso eskola lagunduta, foroetan parte hartuta eta <i>Literatura geraldia</i> eta <i>Musikaz blai</i> bezalako egitasmoak abian jarrita, bertze euskara zerbitzuekin elkarlanean.	

Arloa: ELKARTEAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK		
Elkarteen funtzionamendua eta jarduerak euskaraz izatea.	Elkarteetan eragin nahi izan dugu hizkuntza irizpideen gaiarekin. Bortzirietako elkarte aunitzekin noiz behinkako harremana dugu eta batzuekin iraunkor xamarra. Hala ere, nekeza suertatu zaigu helburu honetan urratsak egitea. Zenbait elkartek barneratua dute euskarazko funtzionamendua eta jarduerak euskaraz antolatzea, bertze batzuen kasuan oraindik bada zeregin franko.	

Arloa: AISIALDIA ETA KIROLAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK		
Euskarazko jarduera ludikoaren eskaintza handitzea.	Euskarazko jarduera ludikoaren eskaintza handitzeko saiakeran azkeneko lau urteak ez dira bereziki oparoak izan, zailtasun eta ezintasun batzuk tarteko. Ezin izan dugu diagnostiko osatu bat egin eta horren gabezia, nekeza izan zaigu aisialdiko eragileekin elkarlanean euskarazko aisialdi eskaintza handitzea. Horrek ez du erran nahi euskarazko aisialdi eskaintza eskasa denik, edota euskarazko eskaintza berririk ez dagoenik. <i>Solaslagun</i> egitasmoaren baitako ekintza osagarriek ez dute izan esperotako garapen eta irismenik, bertzeak bertze pandemiak egitasmoa ukitua utzi zuelako eta dinamika berreskuratzea kostatu egin delako. Epealdiaren amaiera aldera eskaintza zertxobait berpiztu da (<i>Mintzodromoak</i> , txangoak, sagardotegiak, eta abar).	
Kirol munduak euskaraz funtzionatzea eta euskarazko eskaintza bermatzea.	Kirol munduak euskaraz funtzionatzeko eta euskarazko eskaintza bermatzeko azkeneko lau urteak ez dira bereziki oparoak suertatu. Gure Txokoa eta Beti Gazten eskaintzaren egoera zein den aztertu dugu, baina hutsuneak non dauden detektatzeko diagnostikoa ez dugu guztiz osatu, eta horrek baldintzatu du hurrengo urratsak ez egitea: eragile horiekin elkarlanean euskaraz funtzionatzeko planak abian jartzea eta euskarazko eskaintza bermatzea.	
Aisialdian aritzen diren arduradunen euskararekiko jarrera aktibatzea.	Arduradun eta monitoreen jarrera aktibatzearen helburuarekin trebakuntza eskaintza egin dugu, baina ez dira baldintzak eman horiek aitzinera ateratzeko. Kontuan hartu behar da hein handi batean boluntarioen lana dela entrenatzaile, monitore, edota irakasle izatea. Aisialdiko begiraleekin eta udaleku irekietan eskura ditugun aldetik errazagoa izan da euskararen gaia lantzea. Diagnostikoan fintzeko beharra badugu ere, ez du zerikusirik musikan, bertsoetan, euskal dantzetan, pilotan, eta herri kirolean dugun euskarari dagokionez dugun panoramak, futboleak eta bertze gorpuz espresio zein jarduera ludikoetan dugunarekin. Eta noski, herri tikien eta handien arteko aldea nabarmena da.	

Arloa: GAZTEEN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK		
Gazteen artean euskararekiko kontzientzia sortzea eta areagotzea, eta erabilera indartzea.	Gazteen artean kontzientzia sortzeko eta erabilera indartzeko gure igurtzia mugatua (izan) da. Euskara zein arnaguneei buruzko tailerrak propio antolatzen saiatu gara, arrakasta gutirekin. UEMAREN batxitailerrek beren ekarpena egin dute.	
Gazteen artean kultur sorkuntza eta euskarazko kulturaren murgiltzea sustatzea.	Gazteen intereseko ekitaldiekin eta eurekin elkarlanean zertxobait gehiago lortu dugu; gazte besta eta bertso-bazkari/afarien bidez. Euskarazko irakurzaletasuna pizteko eta kultur erreferenteak hurbiltzeko "Irakurriz gozatu" eta GazteZulo erabili ditugu, horren eragina ordea	

	mugatua da.
Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA	
Lehentasuna: ALTUA	
HELBURUAK	
Eskualdeko hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea, eta aniztasun horrekiko jarrera positiboa bultzatzea (BHHP).	Helburu horren lorpenean urrats batzuk egin ditugu, hasita gure datu bilketa eta diagnosietatik, eta zehar lerro gisa landu dugu (D ereduaren aldeko kanpainetan eta Korrikan materiala hainbat hizkuntzatan argitaratuta, <i>Solaseanen</i> , ERAn, euskalduntzeko matrikulazio kanpainetan, ikastetxeetarako harrera protokoloan, eta abar). Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasun taldea sortu dugu 2024an eta bertan ibilbide eta jatorri aniztetako herritarrek parte hartu dute. Hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzeko eta aniztasunarekiko jarrera positiboa bultzatzeko lanean segitu behar dugu, Bortzirietan ez baikaude aniztasunaren eta immigrazioko jatorria duten herritarren kontrako diskurtso eta jarreretatik salbu.
Elkar ezagutzarako guneak eta uneak sortzea, euskara erdigunean jarrita (BHHP).	Hortaz, elkar ezagutza eta elkarguneak sustatzen segitu behar dugu. Bide hori urratu dugu aniztasun taldeak antolatutako ekimenei esker, dokumental emanaldiak eta aniztasun besta kasu, eta bide horri segida eman behar diogu. Ikastetxeek eta guraso elkarteek aunitz dute egiteko zentzu horretan; Irainen eta Toki-Onan aniztasun besta edo ekitaldiak antolatu dituzte erraterako. Bide baten hasmentan gaude eta euskara erdigunean jarrita zein aniztasuna aitortuta espazio, egitasmo eta ekintza gehiago beharko ditugu.

Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA	
Lehentasuna: ALTUA	
HELBURUAK	
Etorri berriei ongi etorria ematea eta haiekin euskararen inguruko informazioa partekatzea, Bortziria arnagunea dela oinarri hartuta (BHHP).	Helburu hau neurri batean bete badugu ere, guk nahiko genukeen sistematizazio mailatik urrun gelditu gara, informazioa jasotzen duten herritar kopuruaren eta soslaiaren inguruko informazioa ezin eskuratuta. Etorri berriei ongi etorria eman eta euskararen inguruko informazioa partekatzeko egiteko horretan urrats berriak egin ditugu: UEMAre esku orriez eta BEMen bideoaz gain, ongi etorri saioak antolatu ditugu herriko etxeetan, baita bisita gidatu bat ere. Ikastetxeekin eta gurasoekin ere partekatu dugu ongi etorrirako materiala. Hurrengo planerako harrera egin eta materiala helarazteko bide berriak asmatu eta sistematizatu beharko ditugu, baita horien gaineko jarraipena egiteko moduak ere.
Bertako herritarrak harreragile izateko sentsibilizatzea eta inplikatzeta (BHHP).	Sentsibilizazio eta inplikazio helburu horretan aitzinera pausoak eman baditugu ere, oraindik aunitz dugu egiteko herritarrak eta eragileak harreragile izan daitezen. Gaia berariaz landu dugu Amelia Barkinekin 2023an egindako trebakuntzarekin eta parte hartzea hagitz txukuna izan da, gaiaren garrantziaren eta horrekiko interesaren lekuko. Herritarrak inplikatzeko helburu horri erantzun diogu aniztasun taldearen sorrerarekin, eta aliantza berriak egin ditugu, bereziki

	berdintasun zerbitzuarekin.
Hizkuntza harrera planaren koordinazioa lantzea (BHHP).	Harrera planaren koordinazioa lantzeko helburua alde batera utzi dugu egoerak eta errealitateak hartaratu. Nolanahi ere, aniztasun taldea bihurtu da herritarren, eragileen eta agintarien elkarlanerako gune eta alde horretatik aitzinera pauso bat eman dugu, ez dena guztiz egonkortua ordea, izan ere, dinamika elikatzeke eta indartzeko etengabeko saiakerarekin segitu beharko dugu. Akaso, antolamendu eta formula malguak beharko ditugu, egitekoen eta beharren arabera aktibatuko direnak.
Herritarren eta udal agintarien arteko elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzearen kultura sustatzea (BHHP)	

Arloa: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK		
Tokiko administrazioetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.	Eskubide horiek bermatzeko tresnarik garrantzitsuenak udaletako erabilera planak eta hizkuntza eskakizunak betetzea dira. Horretan urrats nabarmenak eman dira batik bat bortz udaletan, ez horrenbetez mankomunitateetan. Halere, tarteka mankomunitatera herritar eta eragileen kezak iritsi dira, haien hizkuntza eskubideak ez direlako bete tokiko administrazioetan. Horiek bideratzen ahalegindu gara.	
Gainerako administrazioek euskaraz egin dezaten, eta batez ere herritarren hizkuntza eskubideak babesteko eragitea.	UEMAREkin elkarlanean lanketa berezituak egin dira eskualdez gairako administrazioek euskaraz lan egiteko aukera eman dezaten (Nafarroako Gobernua, Animsa, estatuko hainbat administrazio atal...). Alabaina, lorpenak hagitz tikiak izan dira eta eragite lan handia egin beharko da hurrengo urteetan ere. Horri dagokionez, udalerrri euskaldunek motor lana egiteko ardura berenganatu beharko dute.	
Osasun zerbitzuetan euskarazko arreta bermatzeko aurrerapausoak ematea, bereziki Bortzirietako osasun zentroan eta pediatria zerbitzuan.	Lanpostu zehatz batzuetan hizkuntza eskakizuna ezartzeko eskariak bideratu dira (Igantzi-Arantza erizaina, pediatria...). Horrez gain, eskualdeko osasun zentroko erabilera plana abian jarri da eta horretan parte hartzeko aukera eskaini digute, nahiz eta plan horren helburuak hagitz xumeak diren, oro har mankomunitate honen gutxieneko helburuetatik urrutiegi gelditzen direnak.	

Arloa: IKERKETA SOZIOINGUISTIKOA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK		
Egoera soziolinguistikoaren ezagutzan aitzinera egitea, beharrak eta lehentasunak egoki diagnostikatzeko.	Beharrak eta lehentasunak diagnostikatzeko langintza horretan lortu dugu egoeraren ezagutzan aitzinera egitea eta gaur egun orain dela urte batzuk baino ikerketa eta datu gehiago dugu. Plangintzaldi honen mugarrak dira Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren txostena berritzea eta horretan oinarrituta Bat Soziolinguistika aldizkarian artikulua argitaratzea. Horrez gain, euskararen egoerari buruzko ezagutza eta gogoeta elikatu ditugu Iñaki Iurrebasorekin hitzaldia antolatuta. Hutsuneei dagokienez, garai bateko transmisio eta etxeko erabilera datuak biltzeari utzi diote, eta jarrerei buruzko ikerketa orokorra egiteke dugu, nahiz eta PAZ bekaren bidez	

	etorkinen euskararen inguruko hautemateen gaiari heldu ahal izan diogun.
Bortziritako errealitate soziolinguistikoaren zabalkundea eta kontsultak erantzutea.	Bi helburu hauek ere bete ditugu, zabalkunderako gure webgunea erabilia eta bertan eskuragarri paratuta gure txostena, herritarrek eta eragileek kontsultatu ahal izateko. Azken horren harira, herritarrek egindako kontsulta eskaerei erantzun diegu.



Ildoa: CORPUSA

Arloa: TOKIKO HIZKERA, TOPONIMIA ETA OIKONIMIA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK		
Etxeen izenen erabilera bultzatzea.	Helburu hau etxeen errotulazioan aurrerapausoak ematearekin lotua dago. Bere garaian Lesakan hasitako bidetik jarraitu zitzaion lantzean, euskara batzordeen ekimenez. Plangintzaldi honetan saiakera bat egin da Arantzan, baina ez du aitzinera egin. Bertzalde, Beran sustapen lan bat egin zen hasiera batean, eta egitasmo horrek bertze eragile batzuen bitartez aitzinera egin du.	
Bortziritako hizkeraren ezaugarriak ikertzea eta ezagutzera ematea.	Patxi Iñigok urtetan egindako lana laga zion mankomunitateari eta material horren edizio bat prestatu eta webgunera igo genuen. Halere, helburu dibulгатiboagoa izanen duen materiala argitaratzeko gelditu da (2025eko kudeaketa planean aurreikusia). Helburu honekin lotuta, aipatu behar da Bortziritako ikastetxeetako irakasleei bertako hizkeraren gaineko formakuntza eskaini diegula, Lekarozko ILZrekin elkarlanean. Formakuntza horrek lanerako ildo bat zabaldu du hurrengo urteetarako: formakuntzak eskaintzen ahal dira herritarrei begira, administrazioako langileentzat... Halaber, ikastetxeetan hainbat ekimen jartzen ahal dira martxan, bertako hizkeraren erabileran sakontzeko.	

Arloa: AHOZKO ONDAREA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK		
Bortziritako ahozko ondarearen bilduma gizarteratzea.	Aurreko planean egindako lanari akabaila emateko, bilduma hori ahotsak.eus webgunean argitaratu da, Badihardugu Elkartearekin sinatutako elkarlan hitzarmenaren bitartez. Beraz, Bortziritan 200-2008 bitartean bildutako ahozko ondarea ikusgai dago webgune horretan.	

Arloa: HITANOA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK		
Hitanoaren erabilera eta hedapena sustatzea.	Sustapen horretan ahalegindu gara eta hitanoari buruzko ikastaroa eta hitzaldia antolatu dugu. Hitanoaren gainbehera ez da eten horregatik, baina horren inguruko kezkatik kontzientzia hartzerako jarrera eragin dugu. Aipagarria da emakumezkoen parte hartzea ekimen hauetan.	

	<p>Etorkizunean hitanoa berreskuratu eta hedatzeko ahalegin eta ekimenei arnasa emateko borondatea sumatu da antolatu ditugun jardueretan. 2025eko edizioan Euskaraldia hika ere egingen dugu Bortzirietan eta ikusteko dago horrek hitanoaren erabilera areagotzeko pizgarri izanen ote den. Ikerketaren ildoak ere interesgarria suertatzen ahal da ikerketari esku hartzea gaineratzen bazaio eta badira horren inguruko esperientziak bertze toki batzuetan. PAZ ikerketa beka aukera ona izaten ahal da gai hau lantzeko.</p>
--	--



Ildoa: KUDEAKETA

Arloa: GIZA BALIABIDEAK ETA TALDE TEKNIKOA	
HELBURUAK	
<p>Lan taldea egonkortzea, eta euskara mankomunitateak bere helburuak betetzeko behar dituen giza baliabideak ziurtatzea.</p>	<p>Lan talde egonkor eta sendoa izan dugu plangintzaldian zehar, elkarlanean eta eraginkortasunean irabazi duena, baina bazuen egiturazko arazoa administrari lanpostuari zegokionez. Akabailan administrari laguntzaile lanpostua finko bihurtzea lortu bada ere, ez da lortu lanaldi osoko administrari lanpostua sortzea. Bortzirietan administrari laguntzaile kontratua zeukan langile bakarrak administrari ofizial baten lanak egiten zituen bertzelako kontu berezitatez gain (nominak, gizarte segurantzak, kontabilitatea, eta abar.), betiere lanaldi erdian. Azkenean mankomunitateko administraria zenak bere mailako lanaldi osoko lanpostu finko bat eskuratu zuen Lesakan, eta horrela gelditu gara plangintzaldiaren amaieran administraririk gabe. Datozen hilabete/urteek berebiziko garrantzia izanen dute lan taldeari dagokionez, batetik, administrari berriak hasi beharko du martxa hartzen eta lan taldea berriz ere egonkortu beharko dugu, eta, bertzetik, mankomunitate bakarrarekin aldaketa handiak aurreikusten baitira, langile guztiak zerbitzuen erakunde bateratuan egonen baikara.</p>
<p>Langileen lan baldintzak eta lanpostuen balorazio egokiak bermatzea.</p>	<p>Langileen baldintza egokiak bermatu dira eta lanpostuen balorazioa burutu da. Horrek ekarri du lan baldintzen inguruko eztabaida eta desadostasunik, lan gatazka batean bukatu duena. Bereziki, aparteko lan orduen eta kilometrajearen inguruko desadostasunek eragin dute gatazka. Bideratu dela erran beharra dago eta oreka berria aurkitu dugula, baina ez da izan guztiongan aho zapore mikatza utzi gabe, eta zenbait afera ez dira behar bezala idatzita gelditu. Lan baldintzetan (eta eraginkortasunean) hobekuntza ekarriko zuen telelanerako egokitzapen teknikoak egiteko gelditu da; Arantzan zuntza jartzearen ondorioz, ematen du epe motzean teknikoki posible izanen dela (lau urteren ondoren).</p>

Arloa: PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	
HELBURUAK	
Plan estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.	Helburua betetzat ematen ahal dugu ebaluazio txosten honekin. Plan estrategikoaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea osatu genuen, hautetsiekin zein euskalgintzako eragileekin. Esperientzia hagitz baliagarri eta baikorra izan da; etorkizunean planaren jarraipena egiteko beharko ditugu antzeko parte hartze egiturak.
Urteko kudeaketa plana egitea eta ebaluatzea.	Urteroko plana diseinatu, onartu, gauzatu eta ebaluatzeko helburua bete dugu, eta erraten ahal dugu plangintzari zein ebaluazioari dagokionez lortu ditugula eskarmentua eta sistematizazioa. Hala ere, bada etengabeko eguneratzea eta egokitzea eskatzen duen arlo bat, eta ikasten eta hobetzen segitzeko erronka geure egiten dugu.

Arloa: ERAKUNDEAREN EGITURA	
HELBURUAK	
Mankomunitatearen egitura eta funtzionamendua berritzea.	Mankomunitatearen egituraren aldaketak izan dira plangintzaldi honetan, batzuk espero genituenak eta bertzeak ez. Euskara batzordeen aroa agortuta zegoela ikusita arrakastaz burutu dugu euskalgintza berrantolatzeke gogoeta prozesua, <i>Bor-bor Bortzirieta Euskaltzaleen Mugimenduaren</i> sorrera ekarri duena. Hurrengo urrats logikoa, ordea, mankomunitatearen estatutuak berritzearena aldaketa horiei egokitzeko, bereziki Aholkularitza Batzordeari dagokionez, ezin emanda eta inpasse egoeran gelditu gara, zerbitzu mankomunitate berria sortzeko prozesua abiatu delako. Horrek ekarriko du 35 urte bete dituen euskara mankomunitatearen desegitea; euskara zerbitzua laster batean mankomunitate bakar horretako parte izatera pasako da, egitura eta batzorde berriak izanen dituena. Horren harira, euskara mankomunitatetik erakunde berri horretan euskararen batzorde propioa aurreikusteko eta herritarren parte hartzea bermatzeko eskaera egin dugu, bertzeak bertze.
Mankomunitatearen egoitza berria sortzea (toki irisgarri eta ikusgarri batera eramanda), euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren elkargune izanen dena (helburu hau aktibatuko dugu gogoeta prozesuan urrats hori egiteko adostasuna bada).	Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren egoitza berria sortzeko helburua baztertu egin da politikoki bertze borondate eta lehenetasun batzuk izan direlako, bertze eredu bat lehenetsi delako, mankomunitate berri horren zerbitzu guztiak Alkaiagan egonen den eraikinean bateratzearena alegia. Horren inguruan ere euskara teknikariok egin ditugu gure ekarpenak, balizko abantailak eta desabantailak mahai gainean paratuta. Aipatzekoa da hasiera batean mankomunitate berriaren behin betiko egoitza prestatu arte asmoa zela euskara zerbitzua Arantzan mantentzea, baina ikusita idazkaritza, administrariak, lehendakaritza eta zerbitzu gehienak behin-behinean Alkaiagako Cederna-Garalurren egoitzara eramatea aurreikusten dela,

	teknikariok euskara zerbitzua bertara eramateko eskaera bideratu dugu.
--	--

Arloa: EUSKALGINTZAREKIN ELKARLANA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Euskalgintza indartzea, elikatzea eta gogoeta sustatzea.	Euskalgintzaren gogoeta prozesuan lortu genuen herritar eta eragile aunitzek parte hartzea, eta horren emaitza izan zen Bor-Bor, alde horretatik beharrezkoa bezain arrakastatsua izan zen prozesua. Euskalgintza indartzeko beharra badugu ordea, eskualdetik kanpo bezala hemen ere. Etorkizuneko erronka izanen da aurrerantzean ere Bortzirietako euskalgintzaren ekosistema sendotzea.
Euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren arteko elkarlan eta koordinazioan sakontzea.	Plangintzaldi honetan euskalgintzako eskualdeko zein Euskal Herriko eragileekin elkarlan eta koordinazioan sakondu dugu. Nafarroako euskara teknikarien antolamendua eta koordinazioa hobetzeko plan estrategiko berria ondu dugu, UEMArekiko elkarlana are estuagoa bilakatu da, eta urratsak egin ditugu euskaltegiarekin, ikastetxeekin, eta, oro har, euskalgintzako eragileekin elkarlanean sakontzeko.
Euskalgintza babestea, estrategikoak diren sektoreak diruz lagunduta.	Euskararen biziberritzerako estrategikoak diren sektoreak, hala nola helduen euskalduntze-alfabetatzea, tokiko hedabideak, bertso eskolak, etab. babesten eta diruz laguntzen segitu dugu, eta ez dugu gibelera pausorik eman babes eta laguntza horretan. Ziurtagabetasun eta krisi ekonomiko garaian dirulaguntzen joera gorakorra bermatzen saiatu gara, pisurik galdu ez zezaten bizitzaren garestitze handiaren aitzinean.

Arloa: IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA	
HELBURUAK	
Etengabeko formakuntza.	Etengabeko trebakuntzan aitzinera egin dugu, eta ezagutza soziolinguistikoaren etengabeko eguneratzeari dagokionaz gain, toki berezia eman diogu prozedura administratiboari eta zehar lerroko gaien artean genero berdintasunari. Behar edo nahi baino gutiago landu ditugu administrazio elektronikorekin, tresna informatikoekin eta komunikazioarekin lotutako formakuntzari dagozkionak.
Administrazio elektronikoa abian jartzea.	Administrazio elektronikoa guztiz ezarri ez badugu ere, hasiak gara, kostata eta uste baino eragozpen gehiagorekin, administrazio elektronikoko bidez funtzionatzen. Erraten ahal da trantsizio fasean gaudela aitzineko eredutik eredu berrira. Herritar eta eragileei dagokienez bermatua dago mankomunitatearekin harremanak telematikoki izatea eta izapideak administrazio elektronikoko bidez egin ahal izatea. Mankomunitatearen espedienteen kudeaketari dagokionez dugu atzerapena, batez ere. Nabarmendu behar da administrazio elektronikokoaren bitartez lan egiten

	hasi garelarik euskararen erabileran sumatu dugun atzerapausoa. Izan ere, sistema horretarako eskura ditugun aplikazio eta programa informatikoak ez daude prestatuak euskaraz lan egiteko, eta zenbait kasutan ezta zerbitzua euskaraz emateko ere. Eragiteko arlo garrantzitsua izanen da hau datozen urteetan ere.
--	---

Arloa: KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA	
HELBURUAK	
Mankomunitatearen kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa.	Mankomunitateko kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa normaltasunez garatu da. Kudeaketa nahiz kontabilitatea eguneratuta egon dira une oro, batik bat administrariaren lanari esker. Mankomunitateko gerakinari esker lortu dugu erakundea ekonomikoki jasangarria izatea eta ordainketei aurre egitea.

Arloa: KOMUNIKAZIOA	
HELBURUAK	
Mankomunitatearen helburuetan aitzinera egiteko etengabe komunikatzea (komunikazioa, zabalkundea eta ikusgarritasuna).	Erakundearen komunikazio plan orokorra gauzatu gabe gelditu da. Mankomunitate berriari gaia erakunde berriaren ikuspegitik bere osotasunean eta euskara arloari dagokionez berriaz landu beharko da. Aspektu aunitz hartu behar dira kontuan, barne zein kanpo komunikazioa, hedabideak, sare sozialak, etab. Epealdi honetan lorpenik handiena izan da webgunea txukuntzea eta argitalpen plan eraginkor batekin erregulariki elikatzea. Horrez gain, mankomunitateak egiten duen lana zabaltzea eta ikusgarri egiteko buletina sortu dugu berriki. Gaur egun komunikazioan bere biziko garrantzia dute sare sozialek. Mankomunitateak Whatsapp, Facebook eta X erabili izan ditu baina inolako sistematizaziorik gabe. Hurrengo urteetarako horien inguruko irizpideak lantzea beharrezkoa izanen da.

➔ JARDUERAK: BETETZE MAILA

Jardueren gauzatze mailari buruzko ebaluazioa

Jarduerak ebaluatzeko lehenbiziko neurgailua gauzapena da, aurreikusitako jarduerak egin ote diren. Horretarako, banaka-banaka egin diren jarduera guztiak zerrendatu eta, egindakoak berdez, egin ez ditugunak gorriz, eta bertze modu batera edo erdizka egin ditugunak laranja koloreztatu ditugu. Akabailan, planaren betetze maila bi modutara eman dugu:

- Jarduera guztiak kontuan hartuta (baita hasiera aurreikusi ez zirenak ere). Taula eta grafika.
- Biziberritze jardueren gaineko irakurketa egiteko, lehentasun mailen arabera (altua, ertaina eta baxua) ponderatu ditugu emaitzak. Lehentasun altuko jardueri 3 puntu eman dizkiegu, ertainekoei 2, eta baxukoei 1. Taula eta grafika.



Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA

ARLOA	JARDUERAK	BAI	EZ	ERDIZKA
ETXEA	1. Haur jaioberriak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi.			
	2. Haurrak eskolatu berritan eskolak eta familiak beren sozializazio prozesuan betetzen duten funtzioari buruzko mezuak eta euskarriak 3 urteko haurren familiei helarazi.			
	3. Euskaraz ez dakiten gurasoei hitzaldiak, tailerrak, baliabideak... eskaini.			
	4. Gurasoen hizkuntza ohituretan eragiteko tailerrak antolatu.			
	5. Teknikarien sareak kudeatzean duen era.eus webgunea elikatu eta edukiak zabaldu.			
	6. Hurrekin erabiltzeko euskarazko kantu, jolas, formula eta antzekoen gaineko baliabideak eskaini.			
	7. 0-3 urte bitarteko familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi euskarazko murgiltze eredu hauta dezaten aholkatuz.			
	8. Hezkuntzaren maila guzietan ikasleei baliabideak eta formakuntza eskaini, hizkuntza jarreraren inguruan eta zehazki arnaguneen garrantziaren inguruan.			
	9. EIBZk DBH 2. eta 3. mailerako "Sormen digitala" hautazko ikasgai berria Bortzirietako DBHko ikastetxeetan ezartzeko lanketa egin.			
	10. Bortzirietan euskararen berreskurapen prozesua nolakoa izan den ikasleekin lantzeko unitate didaktikoa prestatu.			

	11. Bortzirietako ikastetxeen eta Iparraldeko mugakide diren herrietako ikastetxeen arteko harremanak sustatu (euskararen erabilera, hizkera ezberdinen ezagutza, motibazioa, kontzientziaketa, identitatea...).			
	12. Hezkuntza arloko eragileekin mahai teknikoa sortu.			
	13. Ikasleek euskaraz sozializatzeko dituzten hutsuneak aztertu eta baliabide egokiak erabaki (hezkuntza arloko mahai teknikoan).			
	14. Ikastetxeen hizkuntza planean laguntza teknikoa eskaini eta hizkuntza irizpideak landu.			
	<i>Garapen atipikoko haurren ikasketak hezkuntza-inguru elebidun (edo eleaniztun) batean</i> (EHU Uda Ikastaroa, Lesaka, irailak 17): "Haurren artean hizkuntzaren erabilera sendotzeko baliabideak Bortzirietan" gaiaren aurkezpena (Patri).			
	<i>Eskola hiztun bila</i> jardunaldia (Donostia, Kursaal, urriak 28): "Hizkuntza gozagai eta gozabide" aurkezpena (Patri).			
	<i>Euskaraz kilika</i> egitasmoaren sustapena Bortzirietan. Proiektu hau Dindaia Fundazioak antolatua da Euskarabideak finantzatua. Aisialdiko jarduera bat da, online garatzen dena eta haurren artean euskara modu ludiko batean praktikatzea du helburu.			
	"Euskara eta kulturartekotasuna" proiektua Ricardo Baroja I.P.an pilotatu			
AISIALDIA, KULTURA KIROLA ETA LAGUNARTEA	15.5 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantzia azalduz.			
	16. Guraso elkarteekin eta herrietako kultur eragileekin lanketa egin haur eta gaztetxoentzako kultur eta aisialdi eskaintzaren gaineko hizkuntza irizpideei buruz.			
	17. <i>Euskarazko produktuen katalogoa</i> banatu.			
	18. Euskarazko udaleku itxien berri eman.			
	19. Pauso eta Salto udalekuak (UEMA) sustatu.			
	20. Teknikarien sareak kudeatzen duen era.eus webguneko eskualdeko kultur eta aisialdi agenda elikatu eta edukiak zabaldu.			
	21. Udaleku irekiak antolatu.			
	22. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza teknikoa antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.			
	23. Haur eta gaztetxoek euskarazko kultur kontsumoa bultzatzeko bideoak (irakurzaletasunaren inguruan, euskal musikaren kontsumoaren inguruan...).			
	24. Sakelakoa, programa informatikoak, softwarea... euskaraz erabiltzeko gaztetxoentzako (+12) bideo tutoriala egin.			
	25. Haurrentzako euskarazko baliabide digitalen gida sortu eta zabaldu.			

	26. "Irakurriz gozatu" egitasmoan parte hartu.			
	27. Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako haurrei eta familiei laguntzeko.			
	28. Kanpotik iritsi berri diren ikasleei mentoretza programa eskaini.			
	29. Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz.			
	30. "Kuadrillategi" egitasmoa Beran eta 14-16 adin tartean eskaintzea aztertu.			



Ildoa: HIZTUN BERRIAK

ARLOA	JARDUERAK	BAI	EZ	ERDIZKA
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	31. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko plana diseinatu.			
	32. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina.			
	33. Hitzun berriek ikusgarritasuna izan dezaten eta gizarte bizitzan euskaraz parte har dezaten ekintzak, hitzun talde honi prestigioa eta zilegitasuna emanen diotenak.			
	34. Bortziritako Euskaltegiarekin elkarlanean ikastaro berezituak antolatu.			
	35. Ikaste prozesuetan euskalkidunen presentzia areagotu, euskalkidunak eta euskara ikasleak harreman zuzenean jarriz (euskalkia eta haien jakintza, usadioak, etab. transmititu).			
	36. <i>Etxetik Plazara</i> egitasmoa diruz lagundu.			
	37. Euskara ikasten ari direnei dirulaguntza eman.			
	38. Bortziritako dirulaguntza sistema, doakotasuna ortzimugan duena, garatu.			
	39. Bortziritako Euskaltegiarekin koordinazio gune iraunkorra.			
	40. Bortziritako Euskaltegiari dirulaguntza eman.			
TRANSIZIOA IKASTETIK ERABILTZERA	41. Bortziritako euskalgintzaren gogoetaren barne, eta beharrezkoa balitz berariaz, Bortziritako euskalduntze-alfabetatzearen etorkizuneko antolamenduari buruzko gogoeta sustatu eta lagundu.			
	42. Euskalduntze prozesuan daudenei erabilerara jauzia egiteko bide eman: Solaslaguna, Mintzodromoa eta mintzapraktika egitasmoak.			
	43. Elaide.eus garatu, Nafarroako euskara zerbitzuok elkarlanean sortutako webgunea, euskara ikasleak motibatu, eta erabilerarako jauzia emateko baliabideak eskuratzeko.			

KANPOTIK ESKUALDERA ETORRITAKOAK	44.Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (<i>Euskara +</i> , lan arlokoak), mintzapraktika esperientzia bereziak, etab.			
	Bortziritan helduentzako irakaskuntza iraunkorrerako ikastegia eratzeko aukera aztertzea. Hizkuntza irizpideak eta euskararen irakaskuntza helduentzako. Bereziki kanpotik etorritako herritarrek xede.			



Ildoa: GIZARTE ERABILERA

ARLOA	JARDUERAK	BAI	EZ	ERDIZKA
AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	45.Herritarrek Euskaraldian parte har dezaten lortu, Euskaraldiko antolaketa lagundu, gizarte mugimenduekin elkarlanean.			
	46.UEMArekin baitan eta UEMArekin elkarlanean arnasmuneak balorean jartzeko herritarrentzako saioak eta euskarriak.			
	47.“Arnasa gara” kanpainari jarraipena egitea.			
	48.Hizkuntza praktikei buruzko gogoeta eta sentsibilizazioa etorri berriei dagokienez (BHHP).			
	49.Korrikaren Bortziritako antolaketan parte hartu eta ekimena babestu.			
	50.“Emisio etena” dokumentala diruz laguntzea.			
	51.Bortziritako euskararen berreskurapen prozesuari buruzko ikus-entzunezkoa egin.			
	Euskaraldia: <i>Biziprest</i> dokumentalaren emanaldia antolatu Beran (2021-11-12) eta 2022ko edizioaren aurkezpenean eta lurralde foroetan parte hartu.			
	Abizenen grafia euskaraz jartzeko sentsibilizazio kanpaina (UEMArekin batera; ez zegoen mankomunitatearen plan estrategikoan aurreikusia).			
ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU	52.Udal hautetsiak eta langileak sentsibilizatu eta motibatu euskararen normalizazioan duten egitekoari dagokionez, UEMArekin elkarlanean. Lidergoa partekatu eta aktibatu, euskaraz zehar lerroko gai bezala dagokion tokia izan dezan.			
	53.Udaletako hautetsi guzietan legediari, soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari buruzko ezagutza gerturatu.			
	54.UEMArekin koordinatu eta elkarlanean ari, udal erabilera planen gauzapenean eta jarraipenean.			
	55.Mankomunitateetan erabilera planak abiatu eta jarraipena egin.			

	56.Udalen menpeko erakundeetan (kiroldegiak, musika eskolak, zahar etxeak...) erabilera plan berezituak egin eta hizkuntza irizpideak landu, UEMArekin elkarlanean.			
	57.Baztan-Bidasoa eskualdeko erakunde berria egituratzen denean hizkuntza irizpideak eta plana landu abiatzerako.			
	58.Hizkuntza eskakizunen jarraipena egin, eta udal administrazioetan sartzeko euskara probak bideratu.			
	59.Bortziritako udal eta mankomunitateetako udal langileen euskarazko etengabeko prestakuntzarekin jarraitu.			
	60. Udaletan eta udalez gaindi egiten diren hirigintza proiektuetan hizkuntzaren eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak proposatu.			
	Errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko kanpaina			
	Osakidetzarekin lankidetzaz; Bidasoaldeko ESiko euskara zerbitzua.			
	Berdintasun zerbitzuarekin elkarlana			
	Ezkontza zibilaren espedientea eguneratu eta moldatu; Bortziritako erregistro zibiletara eta bake epaitegietara moldaketa helarazi.			
	Itzulpenak			
ARLO SOZIO-EKONOMIKOA	61.Komunikazio estrategia finkatu eta koordinatu bertzelako eragileekin (UEMA, Euskarabidea, Kontseilua, Eusko Jaurlaritza, etab.).			
	62.Bortziritako era guztietako enpresen mapa eguneratu; aliantzak aztertu.			
	63.Lanbide heziketaren eta lan munduaren arteko uztardura sustatu, euskaratik.			
	64. Eskualdeko garapen eragileekin lanketa proiektu berrietan euskara aintzat hartzeko.			
	65.Lantegietan langileen arteko erabilera informala sustatu.			
	66.Ulerrizketa egitasmoa Bortziritan aplikatzea aztertu.			
	67.Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzeko dirulaguntzen berri eman eta aholkularitza eskaini.			
	68.Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzea sustatu.			
	69.Ostalaritza eta merkataritza establezimendu berriak ireki aitzinetik errotuluak, paisaia linguistikoa, euskaraz lan egiteko baliabideak eta irizpideak eskaini, udalekin elkarlanean			
	70.Ostalaritza eta merkataritza arloko eragileak aktibatu, bezero eta erabiltzaileekiko harremanean lehen hitza euskaraz izan dadin.			
	71."Herrian erosi, euskaraz erosi" egitasmoa garatu, material eta zerbitzu eskaintza zabaldu.			
	72.Berako bentetako eragileekin sentsibilizazioa landu, euskararen balio erantsia erakutsaraziz.			
	73.Baztan-Bidasoako turismo arloko eragileekin elkarlanerako gunea sortu.			
	74.Turismo arloko eragileak aktibatu, bisitariekiko harremanean euskara balorean jartzeko eta hizkuntzari			

	buruzko informazioa emateko.			
	75.Turismo arloko eragileekin hizkuntza irizpideak landu (informazioa ematerakoan, bisita gidatuetan, paisaia linguistikoan...).			
	76.Bisitari eta turistei euskararen berri emanen dieten euskarriak sortu eta zabaldu, euskara (agurrak, esapide laburrak...) erabiltzera bultzatuz.			
	77. Euskara ardatz izanen duten bisita gidatuak antolatu eta euskarriak sortu.			
	<i>Bai Euskarari</i> dirulaguntzen deialdia egin eta tramitatu.			
	Baztan-Bidasoarako UGET delakoa prestatzeko parte hartze prozesuan parte hartu (Patri):			
	Finantza entitateetan eragitea (UEMA)			
	Neurketa Laboral kutxan UEMArekin elkarlanean.			
	Cederna-Garalurrekin hizkuntza irizpideak eta elkarlana aztertu.			
	Finantza entitateetan eragitea (UEMA). Neurketa Laboral kutxan UEMArekin elkarlanean.			
	Etxalarko landetxetako webguneak (BEM-UEMA). Gutuna bidali landetxeetara.			
	Marka berri bateratua.			
	Lan arloko egitasmoen topaketa			
INGURU NE DIGITALA	78.Herriarrek eta entitateek programa informatikoak, softwareak, aplikazio informatikoak eta sare sozialak euskaraz erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak.			
	79.Euskarazko ingurune digitalaren erabileran trebatzeko ikastaro eta tailerrak eskaini.			
	80.Merkatari, elkarte, enpresa, norbanako, etab.en webgune eta aplikazio informatikoak euskaraz egon daitezen aholkularitza (eta dirulaguntzak).			
TOKIKO KOM.	81. Eskualdeko komunikabideentzako diru laguntzak kudeatu.			
KULTURA	82.Mankomunitateak herrietan antolatzen dituen kultur ekitaldiak bertako eragileen esku uzteko ibilbidea egin.			
	83.Kultur taldeekin hizkuntza irizpideak landu eta kultur taldeek euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.			
	84.Euskarazko kultura prestigiatu eta herriarrek euskarazko ekitaldietan parte har dezaten/euskarazko kulturaz gozatzeko ekimen eta kanpainak, bertze eragile batzuekin elkarlanean.			
	85.Euskarazko kultur sormena sustatzeko, kultur talde eta sortzaileentzako (gazteentzako) beka.			
	86.Euskal kulturaren transmisioaren inguruko foroetan parte hartu, eta topaketak antolatu elkarlanean.			
	87.Bortzirietako Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu.			
	88.Etxepare literatur sariketa antolatu eta lan sarituak zabaldu.			
	89.Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu liburuen gomendioak eginez, tokiko komunikabideekin eta			

	liburutegiekin elkarlanean.			
	90.Euskal musikaren gomendioak egin, tokiko komunikabideekin eta musikariekin elkarlanean.			
	Berako Udalak abiatutako <i>Uscaldunac garenez guero</i> ekimenaren barne, zenbait jardueraren antolaketan parte hartu.			
	Euskarabideak antolatutako "Gora-gora Fest" kultur zikloaren antolaketan lagundu.			
ELKARTEAK	91.Bortziritako elkarteetan euskararen erabileraren gaineko diagnostia egin; lehenetsunak zehaztu.			
	92.Elkarrekin hizkuntza irizpideak landu.			
	93.Elkarrekin euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.			
AISIALDIA ETA KIROLAK	94.Helduentzako aisialdi eskaintzaren azterketa egin.			
	95.Aisialdi arloko eragileekin elkarlanean, euskarazko aisialdi eskaintza areagotzeko proposamena landu.			
	96.Solaslaguna egitasmoaren baitan antolatzen diren aisialdi jarduerak publiko zabalarari eskaini.			
	97.Bortziritako kirol eskaintzan eta kirol taldeetan euskararen erabileraren gaineko diagnostia egin; lehenetsunak zehaztu.			
	98.Kirol taldeekin hizkuntza irizpideak landu, euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.			
	99.Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza tekniko antolatu.			
GAZTEAK	100. Euskararen inguruko motibazio tailerrak antolatu, arnasmuneeen ikuspegitik.			
	101. Gazteen intereseko ikastaro, tailer, saio, eta gisakoak antolatu, erabilera eta motibazioa lantzeko.			
	102. "Irakurriz gozatu" egitasmoan parte hartu.			
	103. Ekitaldiak antolatu gazteekin elkarlanean, musika, antzerkia, etab.			
H. ETA K. ANIZTASUNA	104. Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, eta etab.			
	105. Kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko ospakizuna ("Mugarik Gabe"ren ondorengoa).			
HARRERA LINGUISTIKOA	106. Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilita, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez.			
	107. Harrera instituzionala egiten duten eragileei (harrera, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, irakasleak...), hizkuntza harreraren inguruko formazioa.			
	108. Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrek gonbidatuta.			
	109. Bisita gidatua herria ezagutzeko: aisialdia, bizitza soziala eta baliabideak.			
	110. Ongi etorria emateko/egiteko prest dauden herritar bolondresen sarea osatu.			
	111. Harrera sareko herritarrei formakuntza euskara eta aniztasunari buruz.			
	112. Hizkuntza harrera planaren koordinazioa, maila instituzionalean, eta harrera sareari dagokionez.			


	<i>Immigrazioa eta euskara Bortzirietan</i> artikulua Bat soziolinguistika aldizkarirako.			
	<i>Migrazioak eta harrera linguistikoa</i> jardunaldirako aurkezpena.			
	Hizkuntza politika eta etorri berriei harrera. Quebec-eko eta Euskal Herriko esperientzien elkar trukea. Apirilaren 9ko topaketa online			
	Udaltop udal euskara teknikarien topaketa. "Nola erakarri etorri berriak euskarara?" jardunaldia Bortzirietako esperientziaren berri ematea; "Etorri berriak euskarara erakartzeko Bortzirietan zer?" aurkezpena.			
HIZKUNTZA ESKUBIDEAK	113. Herritarren eskaerak bideratu eta erantzun egokia eman; behar diren aldaketak egin hizkuntza eskubideak bermatzeko (tokiko administrazioari dagokionez).			
	114. Herritarrek administrazioarekin harremanetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatzeko lanean eta elkarlanean segitu, UEMArekin eta Nafarroako gainerako euskara zerbitzuekin			
	115. Eskualdean egoitza duten eta herritarrekiko arreta eskaintzen duten zerbitzuetan (nagusiki gizarte segurantzaren eta enplegu zerbitzuaren bulegoetan) ahozko nahiz idatzizko arreta euskaraz izan dadin lanketa egin, mendialdeko euskara zerbitzuekin batera.			
	116. Bera eta Lesakako liburutegietako arduradunen lanpostuetan HE ezarriko dela bermatu.			
	117. Hizkuntza eskubideen gaineko sentsibilizazioa.			
	118. Osasun arloaren diagnosia egin eta plantilla euskalduntzeko eskaera bideratu.			
	119. Osasun zentroan euskararen kudeaketa plana sustatu.			
IKERKETA SOZIOINGUISTIKOAK	120. 2021eko zentsuko datuak jaso eta ustiatu.			
	121. 2021eko kale-neurketa egin, Soziolinguistika klusterrarekin.			
	122. Bortzirietako ikastetxeetako matrikulazio datuak bildu eta bilakaera aztertu.			
	123. Bortzirietako euskaltegiko datuak bildu eta bilakaera aztertu.			
	124. Etorri berriei eta aniztasunari buruzko datuak bildu.			
	125. Euskararen bilakaera soziolinguistikoa aztertu.			
	126. Hizkuntzari buruzko jarrera eta balioei buruzko ezagutzan sakontzeko, ikerketa kualitatiboak egin.			
	127. Ikerketarako dirulaguntza eta baliabideen berri eman.			
	128. Bortzirietako ikasleei gradu amaierako ikerketa gaiak (soziolinguistika, dialektologia, hizkuntzaren kalitatea...) proposatzea eta diruz saritzea, unibertsitateekin eta Udalbiltzarekin elkarlanean.			
	129. Kale erabileraren neurketaren emaitzak sozializatu.			
	130. Egoera soziolinguistikoari buruzko saioa egin.			
	131. Egoera soziolinguistikoari buruzko artikulua prestatu.			
	132. Herritar eta eragileen kontsultei erantzun.			
	Euskararen gaineko pertzepzioa eta jarrerak Nafarroan ikerketa.			

	mankomunitateekin batera.			
	142. Lan osasuneko prebentzio plana eguneratu.			
	143. Langileen osasun azterketak egin.			
	144. Telelanaren inguruko erabakiak, tresnak horretarako prest eduki, langileari eta enpresari dagokiona zehaztu.			
	145. Lanpostuen balorazioa egin.			
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	146. Jarraipen taldea osatu eta jarraipena egin plan estrategikoari, gutxienez urtean behin (euskara batzordea, euskalgintza, talde tekniko...).			
	147. Plangintzaldiaren amaieran, plan estrategikoaren ebaluazioa egin.			
	148. Hurrengo plangintzaldirako gogoeta prozesua prestatu.			
	149. Urteko jardueren plana eta aurrekontua prestatu.			
	150. Urteko ebaluazioa prestatu eta aurkeztu.			
ERAKUNDEAREN EGITURA	151. Euskalgintzaren eta mankomunitatearen gogoetaren ondoriozko antolamendu berria abian jarri.			
	152. Antolamendu berriaren ondorioz, mankomunitatearen estatutuak berritu.			
	153. Nafarroako mapa lokal berriaren gauzapenean eta Baztan-Bidasoa eskualdeko egituraren sorreran parte hartu.			
	154. Egoitza berrirako baliabide askitasuna bermatu.			
	155. Egoitzaren funtzionamendua erabakitzeko prozesu parte hartzailea egin.			
	156. Egoitza berria egin eta euskara zerbitzua bertara eraman.			
	157. Euskararen espazioa abiatu eta kudeatu.			
EUSKALGINTZAREKIN ELKARLANA	158. Bortzirietako euskalgintzaren gaineko gogoeta egin.			
	159. Euskalgintza sozialaren balizko antolamendu berriarekin elkarlan formulak adostu.			
	160. Bortzirietako era guztietako eragileekin elkarlanean aritu, bereziki euskalgintzakoekin (euskaltegia, tokiko hedabideak, ikastetxeak, bertso eskola, etab.); elkarlan horretan sakondu.			
	161. Euskal Herrian hizkuntza normalizazioan ari diren eragileekin elkarlanean aritu, bereziki UEMArekin eta Nafarroako euskara zerbitzuen sarearekin.			
	162. Dirulaguntzen plan estrategikoa prestatu.			
	163. Dirulaguntzak kudeatu.			
E N A	Euskara teknikarien ordezkapeneterako lan poltsa: Hitzarmena berritu eta hautaketa prozesua egin.			
	Euskarabidearen II. Plan Estrategikoa osatzeko prozesuan parte hartu.			
	Gogoeta prozesurako dirulaguntza eskaera tramitatu, Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak egindako deialdia baliatuz.			
E N A	164. Soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari dagokion trebakuntza jaso.			

	165. Tresna (teknologiko) berriei dagokien trebakuntza jaso.			
	166. Komunikazioari dagokion trebakuntza jaso.			
	167. Mankomunitatearen zereginetarako sortzen diren beharrei erantzuteko trebakuntza (prozedura administratiboa, datuen babesa, etab) jaso.			
	168. Zeharlerroko gaiei dagokien trebakuntza jaso: generoa, ingurumena, etab.			
	169. Administrazio elektronikoa ezarri.			
	Pello Apezetxea ikerketa beka			
KUDE AKETA	170. Bulegoa, tresnak, altzariak, biltegia... kudeaketa eta mantenu egokia bermatu.			
	171. Aurrekontuak, kontuak eta diruzaintza kudeatu.			
	172. Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen komunikazio plana osatu eta gauzatu.			
	173. Webgunea eguneratu.			


Egindako jarduera guztien araberako emaitza

ILDOA	JARDUERA KOPURUA	BAI		EZ		ERDIZKA	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1. SOZIALIZAZIOA (<16 urte)	34	28	% 82,4	5	% 14,7	1	% 2,9
2. HIZTUN BERRIAK	15	12	% 80,0	2	% 13,3	1	% 6,7
3. GIZARTE ERABILERA	114	83	% 72,8	14	% 12,3	17	% 14,9
4. CORPUSA	7	4	% 57,1	1	% 14,3	2	% 28,6
5. KUDEAKETA	39	27	% 69,2	4	% 10,3	8	% 20,5
GUZIRA	209	154	% 73,7	26	% 12,4	29	% 13,9
I. PLAN ESTRATEGIKOA	70	46	% 66	19	% 27	5	% 7



Biziberritzeko jardueren betetze maila, lehenetsunaren arabera emaitzak ponderatuta

ILDOA	JARDUEREN PISUA	BAI		EZ		ERDIZKA	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1. SOZIALIZAZIOA (<16 urte)	90	72	80,0	15	16,7	3	3,3
2. HIZTUN BERRIAK	42	33	78,6	6	14,3	3	7,1
3. GIZARTE ERABILERA	197	132	67,0	31	15,7	34	17,3
4. CORPUSA	6	3	50,0	1	16,7	2	33,3
GUZIRA	335	240	71,6	53	15,8	42	12,5



⇒ JARDUEREN EGOKITASUNARI BURUZKO EBALUAZIOA

Jarduera arrakastatsua eta eraginkorra suertatu den (epeak, kostua, parte hartzea, oihartzuna, etab.) neurtu da. Jarduera bakoitzaren ebaluazioa egin da eta, emaitza kontuan hartuko da hurrengo planerako. Jardueren ebaluazioa batez ere urteroko planen ebaluazioan jorratu da.



2021eko memoria
ekintza planaren ga



2022ko memoria



2023ko memoria



2024ko memoria
ekintza planaren ga

➔ EUSKARAREN AURREKONTUAREN BILAKAERA

Atal honetan kontuan hartu dira euskararen aurrekontuaren bilakaera (funtzionamendua, plana eta dirulaguntzak), udalen ekarpenaren bilakaera, udalen ekarpenaren bilakaera, Euskarabidearen dirulaguntzaren bilakaera eta epealdian KPIK izan duen bilakaera. Mankomunitatearen aurrekontuan hazkundera izan da plangintzaldi honetan, planaren betetzeak eskatzen zuen inbertsio ekonomikoaren isla.

	2021	2022 ²	2023 ³	2024	2025
BEM aurrekontua	342.596,38 €	353.575,04 €	375.601,31 €	390.450,42 €	412.755,92 €
Hazkundera %	2,7	3,2	6,2	4,0	5,7
Funtzionamendua	143.288,95 €	142.705,47 €	152.595,21 €	153.547,60 €	166.820,78 €
Hazkundera %	1,3	-0,4	6,5	0,6	8,0
Plana	80.575,39 €	88.637,53 €	90.100,00 €	99.860,04 €	116.208,97 €
Hazkundera %	7,1	10,0	1,6	10,8	16,4
Dirulaguntzak	118.732,04 €	122.232,04 €	132.906,10 €	137.042,78 €	129.726,17 €
Hazkundera %	1,6	2,9	8,7	3,1	-5,3
Udalen ekarpena	283.593,38 €	283.593,38 €	325.601,31 €	328.450,42 €	377.361,75 €
Hazkundera %	1,8	-0,0	14,8	0,9	3,7
Ekarpena biztanleko	33,26 €	33,12 €	38,20 €	38,52 €	39,89 €
Hazkundera %	1,9	-0,4	15,3	0,8	3,5
Arantza ekarpena	19.857,52 €	20.136,02 €	23.148,10 €	22.764,65 €	24.290,51 €
Hazkundera %	-0,9	1,4	15,0	-1,7	6,7
Bera ekarpena	124.267,52 €	124.293,58 €	143.586,97 €	145.254,67 €	151.247,33 €
Hazkundera %	1,3	0,0	15,5	1,2	4,1
Etxalar ekarpena	27.042,16 €	27.388,97 €	31.628,10 €	31.970,66 €	33.224,95 €
Hazkundera %	2,9	1,3	15,5	1,1	3,9
Igantzi ekarpena	21.254,54 €	20.897,75 €	22.422,33 €	22.456,50 €	22.814,73 €
Hazkundera %	4,5	-1,7	7,3	0,2	1,6
Lesaka ekarpena	91.171,65 €	90.877,06 €	104.815,81 €	106.003,94 €	108.928,39 €

² 2022ko aurrekontuan udalen ekarpenaren hazkundera 0 izan zedin gerakinetik dirua hartu zen.

³ 2022an gerakinetik ditua hartu zenez udalen ekarpena ez igotzeko, 2023an udalen ekarpenean hazkunde handia gertatu zen, nahiz eta gastua ez handitu hainbertze urte batetik bertera, 2022tik 2023ra gastua % 6,5 handitu zen, eta udalen ekarpena % 14,8.

Hazkundera %	2,1	-0,3	15,3	1,1	2,8
KPI %	6,6	6,4	2,9	2,7	
Euskarabidea DL	25.000,00 €	28.000,00 €	28.000,00 €	40.000,00 €	45.000,00 €
Euskarabidearen DL % ⁴	7,3	7,9	7,5	10,2	10,9
BEM aurrekontuaren hazkunde metatua (2021-2024): % 21,8					
Udalen ekarpenaren hazkunde metatua (2021-2024): % 21,2					
KPIaren hazkunde metatua (2021-2024): % 18,6					

⇒ ADIERAZLEAK

Urteko planen eta plan estrategikoaren ebaluazioa egiteko, hainbat adierazleren joerari edo portaerari erreparatu zaie. Adierazle batzuk kuantitatiboak⁵ dira, eta, bertzeak, kualitatiboak⁶. Hortaz, datu objektiboen bilakaera eta aktore sozialek errealitatearen gainean egiten duten interpretazio kualitatiboa, biak ala biak izan ditugu lehengai ebaluazioa egiteko garaian.

Aginte koadroa⁷

Ebaluazioa borobiltzeko, lehentasunezko ildo estrategikoei erreparatuta, hainbat adierazleren bilakaera edo garapena bereziki aztertu ditugu. Horietan aitzinatzeak irudikatzen du plan honetan aurreikusitako helburu nagusietan aitzinera egin ote den eta zenbateraino; planaren arrakasta neurtu ahal izateko aukera eskaintzen digu (arloan estrategikoetan izan diren lorpenak kuantifikatuta). Berdez koloreztatu ditugu planaren hasieran ipar genituen emaitzak erdietsi ditugunean.

⁴ Euskarabidearen dirulaguntzaren zenbatekoa euskara mankomunitatearen aurrekontuarekiko.

⁵ Datu soziolinguistikoak (hizkuntza gaitasuna, erabilera, lehen hizkuntza, matrikulazio datuak, etab.), antolatutako jarduera, ekitaldi, tailer, ikastaro kopurua, parte hartzaile kopurua, generoaren araberako parte hartzea, irismena (banatutako materiala, ikustaldiak, harpidetzak, audientzia), ekintzaren kostua, dirulaguntza eskaera kopurua, ebatzitako dirulaguntza kopurua, dirulaguntzen zenbatekoa, etab.

⁶ teknikarien ebaluazioa, sareko lan taldeen ebaluazioa, udal erabilera planen ebaluazio txostenak, ikerketa soziolinguistiko kualitatiboak, euskara batzordeen edo gogoeta prozesuen bidezko ebaluazioa, dena delako jarduerari dagokion ebaluazio txostena edo memoria (erraterako, Solaslagunari edo Euskaraldiari dagozkionak), eta dena delako jardueraren erabiltzaileen iritzia (gurasoak, ikasleak, irakasleak, haurrak, gazteak, etab.).

⁷ "Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)" dokumentua www.euskarabidea.es webgunean dago ikusgai. 73 eta 74 orrialdeak.

		ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	HASIERAN	HELBURUA	EMAITZA
Ildo estrategikoa	Haur eta gaztekoen sozialazioa (0-16)	2-14 Hizkuntza gaitasuna: euskaraz ongi. <i>Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.</i>	% 92,7 ⁸	% 95	% 95,7 ⁹
		2-14 Lehen hizkuntza euskara+euskara eta gaztelania. <i>Iturria: NEIk eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.</i>	% 78,3	% 80	---
		2-14 Etxean gehien erabiltzen den hizkuntza euskara+euskara eta gaztelania. <i>Iturria: NEIk eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.</i>	% 78,4	% 80	---
		3 urteko haurren matrikulazio datuak D ereduan. <i>Iturria: BEM.</i>	% 91	% 95	% 89,1 ¹⁰
		3-16 urteko ikasleak D ereduan. <i>Iturria: BEM.</i>	% 90,5	% 93	% 91,1 ¹¹
		3-12 etorri berriak D ereduan. <i>Iturria: BEM.</i>	--	% 50	---
		2-14 kale-erabileraren neurketa. <i>Iturria: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2019. Soziolinguistika Klusterra.</i>	% 84	% 86	% 89,8 ¹²
		2-14 kale-erabileraren neurketa, haurren arteko erabilera <i>Iturria: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2019. Soziolinguistika Klusterra.</i>	% 88,5	% 90	---
	Hiztun berriak	15 urte edo gehiagoko biztanleriaren hizkuntza gaitasuna: euskaldunak. <i>NEIk eta BEMek landuak. 3 urtetik gorako biztanleak.</i>	% 73 ¹³	% 75	% 71,8 ¹⁴
		Euskara ikasten duen biztanleria heldua: kopuru absolutua <i>Iturria: Bortziritako Euskaltegia, BEMek landuak.</i>	52	75	56 ¹⁵

⁸ 2011ko NASTATen hasierako datua moldatu dugu, gerora eguneratu baitituzte.

⁹ NASTAT 2021, BEMek landuak.

¹⁰ 2024-2025 ikasturteko datuak.

¹¹ 2023-2024 ikasturteko datuak.

¹² Kale erabileraren neurketa 2021. Soziolinguistika Klusterra eta UEMA. BEMek landuak.

¹³ 2011ko NASTATen hasierako datua moldatu dugu, gerora eguneratu baitituzte.

¹⁴ NASTAT 2021, 15 urtetik goitiko euskaldunak, BEMek landuak.

¹⁵ 2024-2024 ikasturteko datuak.

Gizarte erabilera	Mintzapraktika egitasmoan parte hartzaileak <i>Iturria: Solaslaguna egitasmoa.</i>	38	50	21 ¹⁶
	Euskaraldian parte hartzea. <i>Iturria: Euskaraldiaren memoria, BEM.</i>	1.183	1.500	1.027 ¹⁷
	Euskaraldiak eragindako erabileran hazkundera. Inguruko hizkuntza erabilera eta norberaren erabilera (indizea) <i>Iturria: Berariazko ikerketa, Soziolinguistika klusterra</i>	+ 1,5	+ 3	---
	Erabilera planak Bortzirietako udal eta mankomunitateetan. <i>Iturria: UEMA eta BEM.</i>	4	7	7
	Tokiko plantilla organikoetan euskaldunen % <i>Iturria: Bortzirietako udal eta mankomunitateak. BEM.</i>	% 100	% 100	% 100
	Osasun etxeko plantilla organikoetan HE duten lanpostuen % <i>Iturria: BEM.</i>	% 54,2	% 70	
	15-24 kale-erabilera. <i>Iturria: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortzirietako 2019. Soziolinguistika Klusterra.</i>	% 74	% 80	% 77,7
	Kale-erabilera 15 urtetik gora. <i>Iturria: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortzirietako 2019. Soziolinguistika Klusterra.</i>	% 60,5	% 63	% 64,8 ¹⁸
	Ttipi-ttaparen audientzia datuak. <i>Iturria: Cies, 2019ko azkeneko hilabeteetan</i>	32.000	33.000	26.000
	Ttipi-ttaparen audientzia datuak 14-24 <i>Iturria: Cies, 2019ko azkeneko hilabeteetan</i>	2.000	2.500	3.718
	Bortzirietako enpresetan abiatutako plan kopurua. <i>Iturria: BEM.</i>	---	2	0
	<i>Herrian erosi, euskaraz erosi</i> kanpainarekin bat egin duten establezimenduak. <i>Iturria: BEM.</i>	50	75	63 ¹⁹

¹⁶ 2024-2025 ikasturteko datuak.

¹⁷ 2022ko edizioko Bortzirietako parte hartze datuak.

¹⁸ Kale erabileraren neurketa 2021. Soziolinguistika Klusterra eta UEMA. BEMek landuak.

¹⁹ Bisitatutako establezimenduak.